

Kontratazio publikoari eta lehiari buruzko gida

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko
azaroaren 8ko 9/2017 Legea



Lehiaren Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca de la Competencia

2018ko apirilean, LEA/AVCk Kontratazio publikoari eta Lehiari buruzko Gida argitaratu zuen (aurrerantzean, kontratazio gida), Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, 2018ko martxoaren 9an indarrean sartzearen ondorioz. Data horren ondoren, legeak zenbait aldaketa izan ditu artikuluetan, batzuk garrantzi handikoak, kontratu txikiei dagozkienak kasu.

Hori dela eta, LEA/AVCri egokia iruditzen zaio kontratazioari buruzko gidaren eranskin hau egitea, araudi aplikagarrian egindako aldaketetara egokitzeko, besteak beste, kontratazio txikiari dagokionez, bai eta legea indarrean sartu zenetik aplikazio praktikoa zein izan den txertatzeko eta lehiaren arloan garrantzi handia duten zenbait alderditan sakontzeko ere, hala nola kontratatzeko debekuetan.

AURKIBIDEA

- 1. PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA: OSAGARRIA 15. OR. KONTRATAZIO-GIDA**
- 2. KONTRATU TXIKIAK: OSAGARRIA 19. OR. KONTRATAZIO-GIDA**
- 3. KONTRATATZEKO DEBEKUAK: OSAGARRIA 45. OR. KONTRATAZIO-GIDA**
- 4. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK: OSAGARRIA 28, 29 ETA 30. OR. KONTRATAZIO-GIDA**



1. PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA:

NOLA IZAPIDETU BEHAR DA PROZEDURA SINPLIFIKATUA?: Lizitazioan bitarteko elektronikoak erabil daitezkeela aurreikusten bada, ez da irekiera-egintza publikorik egin beharko.

2020ko ekitaldi honetan, prozedura ireki sinplifikatuan hainbat aldaketa egin dira¹.

Funtsezko aldaketa honetan datza: formulak aplikatuz ebaluatu daitezkeen irizpideen bidez ebaluatu daitekeen eskaintzaren zatia jasotzen duen proposamena jendaurrean irekitzeko egintzaren derrigortasuna ezabatzean.

Derrigortasun horrek ez zuen kongruentziarik prozedura ireki orokor eta ireki sinplifikatu laburtuekin, horietan ez baita nahitaezkoa ekitaldi publikoa egitea eskaintza horiek irekitzeko bitarteko elektronikoak erabiltzen direnean.

Gainera, eskaintzak gutun-azaletan edo artxibo elektronikoetan aurkez daitezkeela zehaztu da (lehen gutun-azalak baino ez ziren aipatzen).

2021.EKO AUREKONTUEN LEGEAK SPKL ALDATZEA

Gidaren eranskin hau egiteko uanean, 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen aurreproiektua izapidetze-fasean dago (2020ko azaroaren 20tik abenduaren 3ra bitartean onar daiteke), eta haren testuak, azken xedapenetako hogeita hamaseigarrenean, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeari egindako hainbat aldaketa jasotzen ditu; aldaketa horiek, hala badagokio, indarrean sartuko lirateke lege hori indarrean sartzen denetik.

Bere aldaketen artean, aurreproiektuak funtsezko aldaketak aurreikusten ditu prozedura sinplifikatua zein prozedura sinplifikatu laburtua eskuratzeko ahalbidetzen duten atalasetan.

PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA. SPKL-REN 159.1.A) ARTIKULUA

Egungo testua:

Balio zenbatetsia 2.000.000 eurokoa edo txikiagoa izatea obra-kontratuen kasuan, eta hornidura- eta zerbitzu-kontratuen kasuan, balio zenbatetsia 100.000 eurokoa edo txikiagoa izatea.

Testu aldatua:

Balio zenbatetsia 2.000.000 eurokoa edo hortik beherakoa izatea obra-kontratuen kasuan, eta hornidura- eta zerbitzu-kontratuen kasuan, balio zenbatetsia lege honen 21.1 artikularen a) letran eta 22.1 artikularen a) letran ezarritako kopuruen edo horien eguneratzeen berdina edo txikiagoa izatea.

¹ SPKLren 159. artikulua: irailaren 18ko 3/2020 Legearen 7. azken xedapenaren bidez aldatu dira 4. zenbakiko d) eta f) letrak. Erref.: BOE-A-2020-10923. Apirilaren 28ko 16/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako 3aren bidez aldatzen dira 4. paragrafoaren d) eta f) idatz-zatiak. Erref.: BOE-A-2020-4705. Apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren 7. azken xedapenak 4. paragrafoaren d) idatz-zatia aldatzen du. Erref.: BOE-A-2020.

21.1 artikulua a) letrak eta 22.1 artikulua a) letrak 139.000 euroko muga ezartzen dute hornidura eta zerbitzu-kontratuarako. Beraz, prozedura hori erabiltzeko aukera ematen duen zenbatekoa handitu egin da, 100.000 eurotik **139.000 eurora**.

PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU LABURTUA. SPKL-REN 159.6 ARTIKULUA

Egungo testua:

6. 80.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra-kontratuak, eta 35.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten hornidura- eta zerbitzu-kontratuak, xede gisa prestazio intelektualak dituztenetan izan ezik, horiei ez baitzaie paragrafo hau aplikatuko, prozedura ireki sinplifikatuak honako izapide hau jarraitu ahal izango du:

Testu aldatua:

6. 80.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra-kontratuak, eta 60.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten hornidura- eta zerbitzu-kontratuak, xede gisa prestazio intelektualak dituztenetan izan ezik, horiei ez baitzaie paragrafo hau aplikatuko, prozedura ireki sinplifikatuak honako izapide hau jarraitu ahal izango du:

Ikus daitekeenez, nabarmen handitu da prozedura horretara iristeko aukera ematen duen atalasea horniduren eta zerbitzuen kasuan, 35.000 eurotik **60.000** eurora igotzen baita, eta horrek arinago kontratatzeko aukera emango du.



2. KONTRATU TXIKIAK

NOLA IZAPIDETZEN DA?

Bereziki esanguratsua izan da SPKLren 118. artikuluan jasotako kontratazio txikiko prozeduran egindako aldaketa².

Gaur egun, egindako aldaketaren ondoren, kontratu txiki bat izapidetzeko ondokoa beharrezkoa izango da:

a) Kontratazio-organoaren txostena. Bertan, kontratuaren beharra arrazoituta justifikatzeaz gain, atariak ez aplikatzeko objektua ez dela aldatzen justifikatu beharko du.

Lehen baldintza hori ez da beharrezkoa izango ordainketak kutxa finkoko aurrerakinak sistemaren edo antzekoen bidez egiten badira, betiere 5.000 eurotik beherako balioa badute.

b) Gastua onartzea.

c) Faktura sartzea.

Ikus daitekeenez, funtsezko aldaketa honetan datza: kontratistak kontratu txikien mugak banaka edo batera gainditzen dituzten kontratu txikiak sinatu dituela justifikatzeko betebeharra ezabatzean. Ondorioz, esleipendun berari kontratu txiki bat baino gehiago esleitzeko aukera zabaltzen da berriz ere, baldin eta kontratua zatitu gabe dagoela ziurtatzen bada, hau da, esleipenen xedea berdina ez bada.

Zatikapenik dagoen egiaztatzeko, kontratuaren alderdi hauek aztertu beharko dira (EBJAren 2013ko uztailaren 11ko epaia, T-358/08)

- Funtzio tekniko-ekonomikoa
- Denbora-eremua
- Eremu geografikoa

Hala ere, kontuan hartu beharko da lehia askearen babes-printzipioa, kontratazio-araudi osoa inspiratzen duena, baita kontratazio txikiko prozeduretan ere.

Ezin da kontratu txikia erabili beharrak iraunkorrak, aurreikusteko modukoak eta errepikakorrak badira: igogailuen mantentze-zerbitzuak edo garbiketa-zerbitzuak, adibidez, urtero egin behar dira eta etengabeko beharrari erantzuten diote.

Garrantzi txikiagoa du kontratazio-organoaren txostena behar ez izateari buruzko aldaketak, kutxa finkoaren edo antzekoen bidez 5.000 eurotik beherako ordainketak egiten direnean.



3. KONTRATATZEKO DEBEKUAK

Kontratatzeko debekuei dagokionez, ez da aldaketarik egon araudian lehia faltsutzearen arloko zehapen irmoari dagokionez, baina aipatzekoa da lehiaren faltsutzeagatik kontratatzeko debekuari buruzko berriazko erabakiak hartu dituztela jada hainbat lehiaren agintarik, hala nola CNMCak eta ACCOK.

CNMCak, 2019ko apirilaren 14ko trenbide-elektifikazio eta elektromekanikako Ebazpenean eta 2019ko ekainaren 20ko Murtziako eskola-garraio Ebazpenean, hainbat enpresa isunekin zigortzeaz gain, sektore publikoarekin kontratatzeko debekua ezarri zien, lehiaren aurkako jokaerengatik. Hala ere, ez zuen debeku horien norainokoa eta iraupena ezarri, eta hori Ogasun eta Funtzio Publikoko ministroaren esku utzi du (https://www.cnmc.es/sites/default/files/2374994_7.pdf eta https://www.cnmc.es/sites/default/files/2563543_1.pdf).

ACCOK, ordea, 2019ko abenduaren 23ko Ebazpenean, lizitazioetan merkaturatua banatzeagatik bi enpresa eta zuzendariak zehatzeaz gain, lehiaren arloko arau-hauste batengatik administrazioarekin kontratatzeko debekua norainokoa eta iraupena zehazten ditu lehen aldiz. Debeku hori Kataluniako Meteorologia Zerbitzuak iragartzen dituen lizitazioei dagokie 18 hilabeteko iraupenarekin (http://acco.gencat.cat/web/.content/80_acco/documents/arxius/actuacions/20200121_Resolucion-exp.-94.18-PUB.pdf).



4. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

ZER DIRA IRIZPIDE KUALITATIBOAK?

Esleipen-irizpide kualitatiboek kalitatezko prestazioak lortzeko balio behar dute. Irizpide horietan ingurumen, gizarte eta berrikuntza-alderdiak jaso ahal izango dira. SPKLk ez du horri buruzko aldaketarik izan, eta, besteak beste, kalitatea, ezaugarri estetikoak, irisgarritasuna, diseinu unibertsala, berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa eta genero-berdintasunerako planak sartu ahal izango direla adierazten du.

Esan bezala, ez da arau-aldaketarik egin esleipen-irizpide kualitatiboiei dagokionez, baina LEA/AVCk ikusten du irizpide horiek ez direla behar bezala erabiltzen.

Batzuetan, erabilera desegoki horren arrazoia da zaila dela kontratazioa erabiltzea beste politika publiko batzuen helburuak lortzeko tresna gisa (erosketa publiko estrategikoa); ez dira gutxi botere esleitzaleei kontratazio publikoan klausula sozialak erabiltzeko betebeharrak eta/edo aukerak sortzen dizkieten zalantzak. Beste batzuetan, ordea, aurrez pentsatutako irizpideak erabiltzen dira, enpresa jakin batzuei bidegabeki laguntzeko, beste batzuen kaltetan.

Hala, LEAK aztertutako kasu batean, ikusi zen ingurumen-esleipeneko irizpideen babesean nolabaiteko hurbiltasun geografikoa zuten enpresei esleitzea bultzatzen ari zirela.

Lizitazio horretan, udalerrian egindako lanak eta enpresaren egoitza udalerritik gertu egotearen ondoriozko emisio-murrizketaren ondoriozko ingurumen-inpaktuaren murrizketa handiena baloratu ziren; guztira, 35 puntu. Ondorioa izan zen lurralde-sustraitzearekin zerikusi zuzena edo ez hain zuzena duten irizpideen % 35eko haztapena neurrigabea zela gainerako esleipen-irizpideekiko, ez zuela inolako proportzionaltasunik bete beharreko prestazioen xedearekiko eta, zalantzarik gabe, lehia-abantaila ematen ziela herritik hurbilen zeuden lizitatzailaei.

Bestalde, enpresaren egoitza udalerritik gertu egotearen ondorioz isuriak gutxitzearen ondoriozko ingurumen-inpaktuaren murrizketari lehentasuna emateko irizpidea ez zen behar bezala diseinatu, garraiatu beharreko langileak edo materiala dagoen lekuaren arabera kalkulatu behar baitzen, eta enpresa esleipendunarengandik hurbil egoteagatik lortuko zen ingurumenaren gaineko benetako inpaktuaren azalpenaren falta sumatzen zen.

Beraz, aztertutako esleipen-irizpideek justifikatu gabeko abantaila ematen diete hurbileko enpresei. Irizpide horiek ez dituzte sarbide-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatzen, eta ez dute proportzionaltasunik kontratuaren xedearekin. (https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/INFORME-CRITERIOS-ADJUDICACION-PLIEGOS-OBRA-BIDEGORRI-UARKA-LOIOLA-AYTO-ARRATZU.pdf)



ZERK AGERTU BEHAR DU KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAN, ESLEIPEN-IRIZPIDEEI DAGOKIENEZ?

Nolanahi ere, esleipen-irizpideek honako hauek bete behar dituzte:

1. Kontratuaren objektuari lotuta egotea.
2. Modu objektiboan formulatzea, berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak erabat errespetatuz, eta kontratazio-organoari erabakitzeak askatasun mugagabea ez ematea.
3. Ebaluazioa benetako gaitasun-baldintzetan egingo dela bermatzea.
4. Aldez aurretik argitaratzea.



ESPERIENTZIA ESLEIPEN IRIZPIDE IZAN DAITEKE?

Kontratu-errekurtsoak ebazteko organoek eta jurisprudentziak behin eta berriz adierazi dute esperientzia profesionalak enpresa lizitatzailen kaudimena zehazteko balio duela eta, ondorioz, ez dela esleipen-irizpide gisa erabili behar, baina Sektore Publikoko Kontratuen Legeak esperientzia esleipen-irizpide gisa erabiltzeko aukera eman du, egoera jakin batzuetan:

- Kontratua gauzatuko duten eta **kontratuari atxikita dauden langileen esperientzia** izan behar du.
- Langile horien **kalitateak** nabarmen eragiten dio hobeto gauzatzeari.

Ikus daitekeenez, esperientziaren esleipen-irizpidea salbuespena da, eta bi baldintza metagarri bete behar ditu, kontratazio-espeditentean zehatz-mehatz ikusi beharrekoak.

Kontratu-baliabideen organoek egokitzat jotzen dute irizpide hori erabiltzea kontratu intelektualak esleitzeko, EBJAren erabakiekin bat etorritik:

- Kontratu publiko bat gauzatzearen kalitatea, modu erabakigarrian, kontratua gauzatzeko ardura duten pertsonen balio profesionalaren arabera izan daiteke, eta balio du haien esperientzia profesionalak eta prestakuntzak osatzen dutela.
- Hala gertatzen da, bereziki, kontratuaren objektu den prestazioa intelektuala denean, eta, adierazitako kasuan bezala, prestakuntza eta aholkularitza-zerbitzuei buruzkoa denean.

Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordeak, 108/18 txostenean (Langileek esleipen-irizpide gisa duten esperientzia baloratzea), beste urrats bat eman du, irizpide hori obren esleipenetan ere erabil daitekeela ondorioztatu baitu, betiere deskribatutako baldintzen arabera: <https://www.hacienda.gob.es/Documentacion/Publico/D.G.%20PATRIMONIO/Junta%20Consultiva/informes/Informes2019/2018-1082019>

Hala ere, SPKkLk irekitako bidea oker erabili dela ikusi da, eta, beraz, azpimarratu behar da kasu honetan zer esperientzia erabili behar den **eskaintzaren kalitatea balioesteko, ezin da irizpidearen neurrigabeko balioespenik eman eta ez du lehia justifikaziorik gabe mugatzen duen sarrera-oztoporik izan behar.**

Aurkibidea



0. HITZAURREA



1. **HELBURUA** Gidaren helburua eta administrazioak lehia bermatzeko duen rola



2. **5 FASEAK** Kontratazio publikoaren prozeduraren bost faseak



3. **KOLUSIOA**



4. **I. ERANSKINA:** kolusioa hautemateko testa



BIBLIOGRAFIA



0. HITZAURREA



1. **HELBURUA** Gidaren helburua eta administrazioak lehia bermatzeko duen rola



2. **5 FASEAK** Kontratazio publikoaren prozeduraren bost faseak



3. **KOLUSIOA**



4. **I. ERANSKINA:** kolusioa hautemateko testa



BIBLIOGRAFIA

Hitzaurrea

Lehiaren Euskal Agintaritza/Autoridad Vasca de la Competencia (LEA/AVC) organismo autonomoa da, eta EAEko lurralde esparruan gauzatzen diren jarduera ekonomikoetan merkatuko lehia eta gardentasuna sustatzea, bermatzea eta baldintzak hobetzea du xede; horretarako, zehapen-, sustapen-, aurkaratze-, xedapen-, kontsulta- eta arbitratze-eskumenak ditu.

Askotariko funtzio horien artetik aipatzekoa da LEA/AVCk sektore publikoaren aholkularitza-organo gisa egiten duen lana; horretarako, administrazioaren eta, oro har, herritarren interesekoak diren txosten eta azterketa arautzaileak egiten ditu.

Euskadin, gure inguruko gainerako herrialdeetan bezalaxe, kontratazio publikoak garrantzi ekonomiko handia dauka. Duela gutxi indarrean sartu den Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (azaroaren 8ko 9/2017) harira, LEA/AVCk uste du interesgarria dela lege horrek dakartzan berritasunak lehiaren ikuspegitik jasotzea.

SPKLren helburua lehia askea babestea da, eta horixe du jatorrizko ideietako bat; horri dagokionez, eskumena duten agintaritzei aurreko arautegietan baino rol handiagoa ematen die, lan honetan ikus daitezkeen moduan.

Testuinguru horretan, gida honek helburu praktikoak ditu, eta kontratazio-organoei nahiz arlo horretan esku hartzen duten beste profesional batzuei aholku eman nahi die; horrez gain, kolusio-zantzuak eta ager daitezkeen galderak ere identifikatu nahi ditu.

Alba Urresola
Presidentea

Aurkibidea



HITZAURREA

HELBURUA



1. Gidaren helburua eta administrazioak lehia bermatzeko duen rola



2. **5 FASEAK** Kontratazio publikoaren prozeduraren bost faseak



3. **KOLUSIOA**



4. **I ERANSKINA:** kolusioa hautemateko testa



BIBLIOGRAFIA

Gida honen helburua da kontratazio publikoan lehia sustatzea eta kontratazio-prozeduretan kolusioa prebenitu eta hari aurka egitea.



ZEIN DA GIDA HONEN HELBURUA?

Gida honen azken xedea **kontratazio-prozesu publikoetan lehia sustatzea da**; horretarako, gida honek erabilgarria den **tresna bat eskaini nahi die esleipen-organoei**, kontratazio publikoa inspiratzen duten printzipioak hedatu eta errespetatu daitezela laguntzeko.

Horretarako, gida honek, alde batetik, esleipen-organoak **kontratazio-prozedura publikoetan** jarraitu beharreko urratsak zehazten ditu eta, beste alde batetik, lizitazioetan lehia askea mugatzen duten eta **lehia arriskuan jartzen duten kolusioak** identifikatzen ditu.

Gida honen asmoa ez da kontratazio publikoaren arloko araudia aldatzeko proposamenak egitea, ez eta araudia aplikatzeko izaera juridikodun interpretazio-irizpideak ezartzea ere; benetako helburua da zenbait gomendio ematea, araudiak eskaintzen dituen aukeren barruan lehia gehien ahalbidetzen duten aukerak identifikatu eta hautatu ahal izateko. Edonola ere, gida honen edukiak ez ditu eragozten LEA/AVCK orain edo etorkizunean araudiari dagokionez egin ditzakeen balorazioak.



ZERGATIK ARGITARATU DA GIDA ORAIN?

2017ko urriaren 8an Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legea onetsi zen, eta araua 2018ko martxoaren 9an sartu zen indarrean. Lege horrek rol garrantzitsuagoa ematen die lehiaren arloko agintaritzeari, eta bereziki azpimarratzen du kontratazio publikoan lehiaren aurkako praktiken kontra borrokatzeko beharra. Testuinguru horretan, eta lehia askea sustatzeko duen betebeharra betetze aldera, LEA/AVCK gida hau argitaratu du, jardunbide batzuk eskaintzeko.

Gida hau dokumentu bizia da, eta administrazio-praktikarekin, doktrinarekin eta auzitegien jurisprudentziarekin aberastuz joango da. Gainera, gida honek legearen araudi-garapenak ekar ditzakeen berritasunak kontuan hartu eta, hala dagokionean, txertatu beharko ditu.



EUSKADIKO KONTRATAZIO PUBLIKOA: DATUAK

Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroan argitaratutako informazioaren arabera, 2016an **Euskadin 920 kontratu** esleitu ziren guztira, eta horien zenbateko osoa 347.892.608 eurokoa izan zen. **Kontratu horietatik 642 prozedura ireki bidez esleitu ziren** (250.116.043 euro); **5 prozedura mugatu bidez** esleitu ziren (1.329.437 euro) eta 273 beste prozeduraren baten bidez –prozedura negoziatua, lehia elkarrizketa, zuzenekoa eta adierazi ez diren beste prozedura batzuk- (96.447.128 euro –2017/12/05eko datuak).




**NOLA LAGUN DEZAKE
LEHIAK INTERES PUBLIKOA
ERDIESTEN?**

Lehiaren bitartez, administrazio publikoak eta gizarteak eskaintzarik onenak jaso ditzakete kontratatuko dituzten ondasunei eta zerbitzuei dagokienez, prezioari, kalitateari eta berrikuntzari begiratuta; horrek **balio sozial eta ekonomikoa sortzen du, eta lehia askea, lehiakortasuna eta aukeraberdintasuna bermatzen ditu.**



**ZEIN PRINTZIPIOK
INFORMATZEN DUTEN
KONTRATAZIO PUBLIKOA?**



**NOLA SUSTA DEZAKETE
LEHIA ADMINISTRAZIO
PUBLIKOEN?**

Administrazio publikoek, lehia askearen printzipioa bermatzeko, kontratazio publikoari buruzko **legedia betetzen duten** eta **lehia ahalik eta gehien sustatzen duten** edo lehia ahalik eta gutxien murrizten duten alternatibak erabiltzeko hautua egiten dute



Aurkibidea



HITZAURREA



1. **HELBURUA** Gidaren helburua eta administrazioak lehia bermatzeko duen rola



2. **5 FASEAK**
Kontratazio publikoaren prozeduraren bost faseak



3. **KOLUSIOA**



4. **I ERANSKINA:** kolusioa hautemateko testa



BIBLIOGRAFIA

Kontratazio publikoaren prozeduraren bost faseak

Zein dira kontratazio publikoaren faseak?

Kontrazio-prozedura publikoa bost fase hauetan bana daiteke:

1. I fasea: Erabakia
2. II fasea: Prozedura hautatzea
3. III fasea: Pleguak diseinatzea
4. IV fasea: Lizitazio publikoko prozedura garatzea
5. V fasea: Kontratu publikoa gauzatzea

■ 1. FASEA: ERABAKIA

1 FASEA: ERABAKIA

Kontratu bat egiteari edo kontratu publikoetakoak ez diren mekanismoak aukeratzeari buruzko erabakia



**NOIZ ERABAKI DEZAKE
ADMINISTRAZIOAK
KONTRATU PUBLIKOA EZ DEN
KONTRATAZIO-PROZEDURA
ERABILTZEA?**

Oro har, sektore publikoko erakundeak behartuta daude kontratazio publikoaren arloko araudian (SPKL) ezarritakoari jarraitzera.

Hala ere, egoera batzuetan, erakunde publikoek beste mekanismo batzuen bidez eskura ditzakete ondasunak eta zerbitzuak; hauen bidez, besteak beste: **Hitzarmenak edo bitarteko propioen/zerbitzu teknikoek bidezko exekuzioa.**



**NOIZ EGIN DAITEKE
HITZARMENA ETA NOLA
FUNTZIONATZEN DU?**

Lehenik eta behin, kontuan hartu beharra dago hitzarmen bat egin ahal izateko ezinezkoa izan behar dela araudian jasotako kontratazio publikoko gainerako modalitateak aplikatzea; ondorioz, hitzarmenen aplikazioa **ezohikoa da.**

Hitzarmenak egin ahal izateko, **betekizun** hauek bete beharko dira (**SPKLren 6. art.**):

- Esku hartzen duten erakundeek ez dute merkatu-bokaziorik izango, hau da, ezingo dute merkaturan egin lankidetzaren xede diren jardueren %20 edo gehiago.
- Alderdiei dagozkien zerbitzu publikoek bermatu beharko dute partekatzen dituzten helburuak beteko direla.
- Hitzarmenaren xedea interes publikoa erdiestea izango da.

1. FASEA: ERABAKIA

1. Kasua

LEA/AVCren txostena udal baten eta fundazio baten artean sinatutako hitzarmen bati buruzkoa.

- Kontratazioari buruzko araudiak **askotariko tresnak eskaintzen dizkie administrazioei, kontratazioan behar den eraginkortasuna lortzeko eta operadoreen arteko aukera-berdintasuna bermatzeko. Publizitate eta lehia** printzipioak funtsezkoak dira onura horiek lortzeko, interes orokorra erdieste aldera. Administrazioek zorrotz saihestu behar dute kontratazio-forma ezegokiak erabiltzea, printzipio horiek errespetatu ahal izateko.
- **Udalaren eta fundazioaren** arteko hitzarmena, kontratu batean ohikoak diren kontraprestazioak daudenean, kontratazioari buruzko araudia modu desegokian erabiltzea da; **lehia mugatzen du**, fundazioaren alde eta beste operadore ekonomiko batzuen kaltetan.
- Erakunde horrek irabazi asmorik ez duela argudiatu zen, baina hori ez dator bat fundazioaren frogatutako merkataritza-jarduerarekin, parte hartzen duen negozio juridikoekin eta administrazioari eskaintzen dizkion zerbitzuen edukiarekin.
- Udalak adierazi zuen fundazioa zela behar ziren **zerbitzuak emateko gai zen erakunde bakarra**; alabaina, horrek ez du funtsik, negozio juridikoen eduki materiala kontuan hartuta.

Ondorioa:

Interes orokorra bermatzeko, errespetatu egin behar da sektore publikoko kontratuei buruzko legea eta kontratazio-prozedura egokia erabili behar da, aukera-berdintasuna eta enpresen arteko lehia bermatuko duena. Hala egiteak herritarrentzat abantaila gehiago eta prezio nahiz kalitate hobea eskuratzea eragingo zukeen.



ZER DA BITARTEKO PROPIOA/ZERBITZU TEKNIKOAK?

Bitarteko propioak edo zerbitzu teknikoak dira **euren jardunaren %80 edo gehiago administrazioarentzat egiten duten** erakunde publikoek edo administrazioek beren zerbitzuetan duten kontrolaren parekoa jasotzen duten erakunde publikoak. SPKLLk kudeaketa-aginduak salbuetsi egiten ditu aplikazio esparrutik 6.3 artikuluan.

Administrazioak aukera izango du bitarteko propio bati zerbitzu bat emateko eskatzeko honako betekizun hauek betetzen direnean:

- Bitarteko propioaren izaera berariaz adierazi da enkargua jasoko duen erakundearen estatutuetan.
- Enkargua jasoko duen erakundeak hura gauzatzeko behar diren bitarteko pertsonalak eta materialak ditu.
- Aztertu beharko da merkatuak zein neurritan eskaintzen dituen ondasun edo zerbitzu horiek, bai bitarteko propio bat sortzerakoan, bai jada badauden bitartekoei kudeaketa-aginduak ematerakoan.
- Aztertu beharko da aginduak zein neurritan eragin dezakeen bitarteko propioak prestazioa hiruugarrenei azpikontratatzeko.



ADMINISTRAZIOAK NOIZ ERABAKI DEZAKE BITARTEKO PROPIOAK ERABILTZEA?

LEA/AVCk frogatutzat jo zuen Lehiaren Defentsari buruzko Legea larriki urratzen zela tokiko zenbait erakunderen, foru-erakunde baten eta haren mendeko sozietate publikoaren (bitarteko propioa) artean sinatutako akordioetan.

Akordioen xedea sozietate publikoa proiektuak idazteaz, obren zuzendaritza fakultatiboaz edo/eta obra publikoen segurtasuna eta osasuna koordinatzeaz arduratzea zen. Hala, zerbitzu horietarako merkatu gatibu bat sortu zen; ondorioz, sektore pribatuko gainerako enpresek ez zuten aukerarik toki- eta foru-erakunde horiei eskaintza lehiakorrek aurkezteko.

LEA/AVCk inplikatura zeuden guztiak behartu zituen jokabide gelditzera eta etorkizunean berriz ez erabiltzera, lehia eraginkorra eragozten zuelako.

2. Kasua

■ 2. FASEA : PROZEDURA HAUTATZEA

2. FASEA: HAUTATZEA

Prozedura hautatzea

Ezinbestekoa da kontratuak behar bezala planifikatzea eta prestatzea, sektore publikoko lizitazioetan errespetatu behar diren printzipioak bete ahal izateko. Hori dela eta, lizitazio batera deitu aurretik, honako elementu hauek aintzat hartu beharko lirateke: beharrak, merkatuaren egoera, iritziak, aurrekontua, kostua-irabazia.



NOLA KUDEATU BEHAR DIRA AURRETIKO KONTSULTAK MERKATUKO OPERADOREEKIN?

Testuinguru horretan, merkatuaren aurretiazko kontsultak **tresna baliagarriak dira merkatuaren ezaugarriak ezagutzeko**. Kontratazio-organismoek merkatu-azterketak egin ditzakete, edo operadore ekonomikoei galdetu, lizitazioa egoki prestatzeko (SPKLaren 115. art.).

Hala ere, **baliteke organo horrek kontsultatutako operadoreen eragin handiegia jasatea**; izan ere, operadoreek kontratazio-prozeduraren aurretiko fasean parte hartu izana erabil lezakete pleguen diseinuan eragiteko eta, hala, eurentzat onuragarriagoak diren plegu batzuk lortzeko.



LEHIAK JASAN DITZAKEEN ARRISKUAK MURRIZTEKO ARAUDIAREN NEURRIAK

Lizitazioetan parte hartzeko berdintasuna, bereizkeriarik eza eta lehia askea bermatzeko, araudiak neurri hauek ezartzen ditu:

ARAUDIAK EZARRITAKO NEURRIAK

HIRUGARRENEI GALDETZEA	GARDENTASUNA	AZKEN TXOSTENA
Operadore ekonomiko aktiboek ezohiko eran baino ez zaie aholkua eskatuko; ahal dela, beste eragile batzuei galdetuko zaie.	Kontsultaren hasiera, xedea eta bertan parte hartuko dutenak, baita hautatutako eragileen motibazioa ere, kontratzailearen profilean argitaratuko dira .	Bukaeran, egindako jarduketa guztiak txosten batean jasoko dira. Txostena espedientean txertatu eta kontratazailearen profilean argitaratuko da.

■ 2. FASEA : PROZEDURA HAUTATZEA



LEHIA EZ FALTSUTZEKO NEURRI GEHIGARRIAK

Kontratuaren xedea ezingo da hain zehatza eta mugatua izan non kotsulatutako eragile baten ezaugarri teknikoetara bakarrik egokitzen den.

115.3 artikulua berariaz galarazten ez badu ere, kontuan hartu behar da SPKLak 70. artikuluan pleguen idazketari buruz esaten duena: **kontratazio-organoari aholku eman zioten operadoreak eta haiei loturiko enpresak lizitazioetik kanpo geratuko dira.**



HAUTAKETAREN GARRANTZIA KONTRATAZIO-PROZEDURAN

Kontratazio-prozedura aukeratzea erabaki estrategikoa da; horregatik, planifikazio-fasean erabaki eta justifikatu behar da. Aukeraketa hori SPKLn aurreikusitako modalitate bakoitzaren betekizunak betetzeko beharrak baldintzatuko du.



KONTRATAZIO-MODALITATE BAT AUKERATZEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO IRIZPIDE OROKORRAK

Kontratazio-prozedura aukeratzeko, kontuan hartu behar dira **gardentasun-publizitate- eta proportzionaltasun-printzipioak**. Modalitate bat edo beste aukeratzeko, kontratuaren xedearen beharrak aintzat hartu beharko dira, **lehia errespetatu beharko da eta lizitatzailerei tratu berdina eman beharko zaie, bereizkeriarik gabe.**

Prozedura bat edo beste hautatzeak eragina du lizitazioen lehiakortasunean; izan ere, **lehia gehien ahalbidetzen duen prozedura prozedura irekia da, interesa duten enpresari guztiek aurkez baitezakete eskaintza.**

Hautatutako prozedura ez denean irekia edo murriztua, beharrezkoa izango da hautua justifikatzea, eta hori kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da.



ZER DA BALIO ZENBATETSIA ETA ZER ERAGIN DU KONTRATAZIO- MODALITATEAN?

Kontratuaren balio zenbatetsiak litizazioaren erregimen juridikoa zehazten du. Balioak ez du BEZa barne hartzen, baina aurreikusten diren kontratuaren luzapenak eta goranzko egokitzapenak adierazi beharko dira (SPKLren 101. art.).

Illo horretatik, kontratuaren balio zenbatetsiak araudian aurreikusitako atalasea gaintzen duenean, erregulazio harmonizatuaren (SARA) mende egongo da, eta prozedura irekia izapidetzea gomendatzen da; zenbait publizitate arau gehigarri bete beharko dira eta lizitatzailerek kaudimenaren inguruko betekizun batzuk izango dituzte.

■ 2. FASEA : PROZEDURA HAUTATZEA

SPK LKO KONTRATAZIO-PROZEDURAK

- 1 Prozedura irekia
- 2 Prozedura ireki sinplifikatua eta supersinplifikatua (*)
- 3 Prozedura mugatua
- 4 Prozedura negoziatua: publizitatearekin/gabe
- 5 Lehia-elkarrizketa
- 6 Berrikuntzarako lankidetzazko prozedura (*)
- 7 Kontratu txikiak
- 8 Presazko izapidetzea
- 9 Esparru-akordioa eta kontratazioko sistema dinamikoak

(*) Prozedura ireki sinplifikatua eta berrikuntzarako lankidetzazko prozedura SPKL berrian txertatu dira.

1. Prozedura irekia (SPKLren 156.-158. art.)

Prozedura irekiak lehia askea ahalbidetzen du; izan ere, **eskatzen diren gaitasuna eta kaudimena dituzten enpresa guztiek aurkez ditzakete eskaintzak**. Lizitatuzaile guztien eskaintzak aztertzen dira eta ez da aurretiko aukeraketarik egiten. Interesa duten enpresa guztiek aurkez ditzakete eskaintzak, eta kontratuaren baldintzak ez dira inolaz ere lizitatuzaileekin eztabaidatuko.

Prozedura lehenetsia izan behar da. Gainerako kontratazio-modalitateen erabilera behar bezala justifikatu beharko da, eta lehian duten eragina aztertu beharko da.

PROZEDURA IREKIARI BURUZKO TAULA

KONTZEPTUA	MOTA	EPEA	SPKL
Erregulazio harmonizatuaren (SARA) mendeko prozeduretan proposamenak aurkeztea	Orokorra	Gutxienez 35 egun obra, hornidura eta zerbitzuetan. Gutxienez 30 egun obra- eta zerbitzu-emakidetan.	156.2 art.
	Aurretik iragarkia jarrita	15 egun	156.3 art.
	Iragarkia bitarteko elektronikoen	Aurreko epeei 5 egun kenduko zaizkie	156.3 c) art.
Erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden prozeduretan proposamenak aurkeztea	Hornidurak eta zerbitzuak	15 egun natural, gutxienez	156.6 art.
	Obrak, obra-emakidak eta zerbitzu-emakidak	26 egun natural, gutxienez	

■ 2. FASEA : PROZEDURA HAUTATZEA

2. Prozedura ireki sinplifikatua eta sinplifikatu laburtua (SPKLren 159. art.)



ZERTAN DATZA PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA? ETA SUPERSINPLIFIKATUA? NOIZ ERABIL DAITEKE?

Prozedura ireki sinplifikatuak administrazio-kargak murriztu eta prozesua errazten du. Prozedura honi esker, izapidetzea laburra eta sinplea da, baina publikitate eta gardentasuna bermatzen ditu, eta horrek lehia sustatzen du.

Prozedura ireki sinplifikatua erabil daiteke obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan honako bi baldintza hauek betetzen direnean:

- a) **Balio zenbatetsia 2.000.000 euro edo gutxiago izatea obra-kontratuetan, eta 100.000 euro edo gutxiago izatea hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan.**
- b) **Esleipen-irizpideetan ez dadila egon balio-judizio bidez ebaluatu behar den irizpiderik, edo, halakoren bat egotekotan, **haztatzeak guttizkoaren %25 ez gaintzea**, kontratuaren xedea izaera intelektuala duten prestazioak direnean salbu; kasu horretan, haztatzeak ezingo du %45 gaintu.**

Horrez gain, arauak izapidetze bereziki laburra ere aintzat hartzen du, **“prozedura supersinplifikatua”** deritzona, **balio txikiko kontratueterako: SPKL 159-6 art.**



NOLA IZAPIDETU BEHAR DA PROZEDURA SINPLIFIKATUA?

1. Lizitatzailleek **Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inksribatuta** egon beharko dute.
2. **Ez da behin-behineko bermerik egongo.**
3. **Proposamenak iragarkian adierazitako erregistroan eta bertan bakarrik aurkeztuko dira.**
4. Prozeduran **balio-judizioaren araberako** esleipen irizpiderik ez badago, **eskaintzak gutun-azal bakarrean aurkeztuko dira.** Bestela, bi gutun-azaletan aurkeztuko dira.
5. Edonola ere, pleguetan ezarritako formulen bidez kuantifika daitezkeen irizpideen bidez ebaluatuko den eskaintzaren zatia duten **gutun-azalak jendaurrean irekiko dira.**
6. Prozeduran **balio-judizioaren araberako** esleipen-irizpideak badaude, kontratazio-organoaren **zerbitzu teknikoek baloratuko dituzte proposamenak**, gehienez ere zazpi eguneko epean.

■ 2. FASEA: PROZEDURA HAUTATZEA

PROZEDURA-SINPLIFIKATUAREN LABURPEN-TAULA

KONTRATU-MODALITATEA	OBRAK		ZERBITZUAK ETA HORNIDURAK	
	Ireki sinplifikatua	Ireki supersinplifikatua	ireki sinplifikatua	ireki supersinplifikatua
GEHIENEZKO ZENBATEKOA	2.000.000 €	80.000 € baino gutxiago	100.000 €	35.000 € baino gutxiago
LIZITAZIOAREN GUTXIENeko EPEA	20 egun	10 egun	egun	10 egun/5 egun ondasun arrunten erosketan denean
BALIO-JUDIZOAREN ARABERAKO ESLEIPEN-IRIZPIDEAK	25% arte	Irizpide ebaluagarrien %100 formula bidezkoak	%25 arte, zerbitzu intelektualetan salbu (ingeniaritza, arkitektura, etab.); kasu horretan, %45	Irizpide ebaluagarrien %100 formula bidezkoak

3. Prozedura mugatua

**NOIZ ERABILI BEHAR DA PROZEDURA MUGATUA??**

Prozedura hau bereziki egokia da **oso konplexuak diren zerbitzu intelektualak kontratatzeko**.

Prozedura mugatuetan, **eskaera egin duten eta hautatuak izan diren enpresek bakarrik aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak**.

Gonbidatzen diren enpresen kopurua nahikoa izan behar da lizitatzailen arteko benetako lehia bermatzeko (ahal den neurrian, gutxienez 5 enpresa gonbidatu behar dira).

4. Prozedura negoziatua (SPKL, 166.-171. art.)

**ZERTAN DATZA?**

Prozedura negoziatua da lizitatzaille batekin edo gehiagorekin negoziatu ondoren kontratua lizitatzaille bati esleitzeko prozedura. Ezohiko prozedura bat da.

**PUBLIZITATERIK BEHAR DU?**

Prozedura negoziatuak ez du beti publizitatea behar; hala ere, prozedura negoziatua publizitaterik gabe egin nahi izanez gero, prozedura hori **neurritz erabiltzea** gomendatzen da.

■ 2. FASEA: PROZEDURA HAUTATZEA

**PUBLIZITATEDUN PROZEDURA-NEGOZIATUA ETA PUBLIZITATERIK GABEKOA
ALDERATZEN DITUEN TAULA**

	OBRAK, ZERBITZUAK, HORNIDURAK, OBRA-EMAKIDAK ETA ZERBITZU-EMAKIDAK	
KONTRATU MODALITATEA	Lizitazio-prozedura negoziatua	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua
NOIZ EGIN DAITEZKEEN	167. artikuluko a)-f) letrak	168. artikuluko a)-e) letrak
IRAGARKIA DERRIGORREZKOA DA?	BAI Kontratzailearen profilean eta beti EBEOn, erregulazio harmonizatuaren arabera	EZ
IZAPIDETZEA	169. artikuluan aurreikusten dena. Gutxienez 3 enpresa gonbidatu behar dira (168.2 artikulua), aurreikusitako kausa justifikatuak daudenean izan ezik	170. artikuluan aurreikusten dena. 169. artikuluko izapidetzeari lotzen zaio, publikitateari dagokion arloari izan ezik.

**NOIZ ERABIL DAITEKE
PROZEDURA NEGOZIATUA?**

Hainbat kasutan erabil daiteke prozedura negoziatua; hala ere, hauek dira kasurik ohikoenak:

Lizitazioak hutsik gelditzen direnean

Prozedura ireki batean eskaintzarik aurkezten ez bada, baliteke aukera ona izatea prozedura negoziatu bat proposatzea; hala, kontratua gauzatu dadin lizitatzailerik izan ditzaketen beharrak jaso daitezke.

Gerora sortutako arrazoiak

Prozedura negoziatuak erabil daitezke gerora sortutako arrazoiak agertzen direnean. Hala ere, garbi utzi beharra dago egoera horiek benetan ezohikoak izan behar direla eta ezin direla aurreikusi; izan ere, badaude aurreikusi ezin diren egoeretarako beste prozedura batzuk, hala nola larrialdiko izapidetzea.

**PROZEDURA NEGOZIATUA
ERABILTZEKO GOMENDIOAK**

- Beharrezkoa da prozeduran aurkezten diren enpresa guztiak onartzea, gonbidatuak izan ez badira ere.
- Hautagaiak aurrez aukeratzeko barne protokoloak ezarri behar dira, tratu-berdintasuna bermatzeko.
- Negoziazioaren alderdiak espedientean jaso behar dira, prozedura ahalik eta gardenena izan dadin.
- Prozedura hainbat fasetan egiten denean, bermatu beharko da azken fasean eskaintzen kopuruak benetako lehia ahalbidetzen duela.

■ 2. FASEA: PROZEDURA HAUTATZEA

5. Lehia elkarrizketa (SPKL, 172. art. eta hur.)

**ZERTAN DATZA ETA NOIZ ERABILI BEHAR DA?**

Lehia elkarrizketa ezohiko beste prozedura bat da; haren erabilera baldintza batzuk egoteari lotuta dago. Erakunde publikoak iritzia trukatzeko dituzten hautatutako hautagaiekin, haiek aurretik hala eskatuta, **bi alderdien beharretara egokituko den lizitazio-prozedura bat gauzatze aldera.**

Prozedura hau prozedura negoziatuaren antzekoa da, eta **oso konplexuak diren kontratu-eraketarako gordetzen da** (esaterako, azpiegitura konplexuen obrak egiteko). Prozedura honek lankidetzak publiko eta pribatua ordezkatzen ditu; izan ere, lankidetzak hori jada ez da aplikatzen.

Prozedura malgua izan behar da, eta bermatu behar da gutxienez 3 enpresak parte hartuko dutela, hori posible bada. Prozedura hainbat fasetan egiten denean, bermatu behar da azken fasean **eskaintzen kopuruak benetako lehia ahalbidetzen duela.**

Itzuli

6. Berrikuntzarako lankidetzak-prozedura (SPKL, 177. art. eta hur.)

**ZERTAN DATZA ETA NOIZ ERABILI BEHAR DA?**

Kontratazio-modalitate hau erabil daiteke **kontratatuak behar dituen obra, produktu edo zerbitzu berritzaileak merkaturatu ez daudenean.** Kontratazio-organoak, beharrezkoak diren ikerketa- eta garapen-jarduerak bereiz egiten dituzten bazkide batekin edo gehiagorekin elkarre bat eratzea erabaki dezake.

Berrikuntzarako lankidetzak-prozedurak honako urrats hauek izango ditu:



Prozedura malgua izan behar da, eta bermatu behar da gutxienez 3 enpresak parte hartuko dutela, hori posible bada. Prozedura hainbat fasetan egiten denean, bermatu behar da azken fasean **eskaintzen kopuruak benetako lehia ahalbidetzen duela.**

Itzuli

■ 2. FASEA: PROZEDURA HAUTATZEA

7. Kontratu txikiak (SPKL, 118. art.)



ZER DIRA KONTRATU TXIKIAK?

Kontratu txikiak dira honako balio hauen azpitik dauden kontratuak:

- 40.000 euro, obra-kontratuen kasuan.
- 15.000 euro, hornidura- edo zerbitzu-kontratuen kasuan.

Ezingo dute urtebete baino gehiago iraun, eta ezingo dira luzatu.



NOLA IZAPIDETZEN DIRA?

Espediente bat kontratu txiki gisa izapidetzeko, **nahikoa da kontratua beharrezkoa zergatik den azaltzen duen kontratazio-organoaren txostena, gastuaren onarpena eta gastu hori dagokion fakturan txertatea.**

Izapidetzea azkarra eta sinplea da kontratazio-organoentzat.



ZEIN ARRISKU DITU KONTRATU TXIKIEN IZAPIDETZEAK?

Aurreko hori gorabehera, **gehiegitan prozedura hau erabili behar izan da beste prozedura batzuen bitartez egitekoak ziren kontratazioak izapidetzeko, beste prozedura horiek parte hartzeko berdintasuna eta lehia bermatzen zituzten arren.** Ildo horretatik, batzuetan kontratuak zatikatu egin dira, kontratu osoaren zenbatekoak prozedura ireki bidez lizitatzeko beharra zekarren atalasea gainditzen zuenean.

Hori dela eta, **SPKLk zenbait neurri ezarri ditu** antzeko egoerak berriz eman ez daitezen. Hala, espedientean justifikatu beharko da ez dela kontratuaren xedea aldatzen ari kontratazioaren arau orokorren aplikazioa ekiditeko, eta baita kontratistak ez dituela sinatu berezita edo batuta aurretik adierazitako zenbatekoa gainditzen duten kontratu txiki gehiago.

Kontratazio-organoak arau hori betetzen dela egiaztatuko du. Gainera, kontratu horiek **elkarrekin argitaratu beharko dira, hiru hilabete behin**, kontratatzailearen profilean, honako eduki honekin:

- Xedea
- Iraupena
- Esleipenaren zenbatekoa
- Esleipenduna

SKPLk salbuespen bat ezartzen dio kontratu txikietan nahitaez argitaratzeko beharrari, zenbatekoa dela eta. Hala, kontratu batek **ez baditu 5.000 euroak gainditzen (BEZ barne)** eta kutxa finkoaren edo antzeko baten bidez ordaintzen bada, ez da argitaratu behar.

■ 2. FASEA: PROZEDURA HAUTATZEA

8. Presazko izapidetzea



**NOIZ JUSTIFIKA DAITEKE
PRESAZKO IZAPIDETZEA
ERABILTZEA?**

Presazko izapidetzea ohiko izapidetze-epeak interes publikoa urratu eta kaltetzen duenean soilik aplika daiteke. Horren ondorioz, **izapidetze-epeak erdira murrizten dira, ohiko prozeduraren epeen aldean.**

Kontratazio-prozeduraren modalitate hau aplikatu ahal izateko, xehetasun osoz justifikatu beharko da, eta zenbait epe mantentzeko aukera aztertuko da, esate baterako eskaintzak aurkezteko epea ohiko prozeduran adierazten dena izan daiteke, lehiakortasunari eta lehia askeari oztoporik ez jartzeko.

Itzuli

9. Esparru-akordioa eta kontratazioko sistema dinamikoak (SPKL, 219.-222. art.)



ZERTAN DATZA?

Esparru-akordioak eta kontratazio sistema dinamikoak administrazioaren eta kontratisten arteko **kontratazioaren arrazionalizazio teknika gauatzeko mekanismoetako batzuk dira**, kontratazioa epe jakin batean luzatzen bada eta epe horretan **prestazioak modu jarraituan emango direla** aurreikusten bada.

Esparru-akordioen xedea kontratu-baldintzen egonkortasuna lortzea da .

Sistema dinamikoetan, baldintzak betetzen dituen edozein eskaintzaile edo lizitatzailerik parte har dezake, kontratua hasita dagoenean; esparru-akordioetan, berriz, behin zehaztu ondoren ezin dira enpresa gehiago sartu kontratua indarrean dagoen bitartean.

Ezohiko modalitate hauek aplikatzeko, kontratazio-espeditentean justifikatu behar da horien erabilera: arrazoiak, akordioaren iraupena eta iraupena luzatzea (hasiera batean lau urtekoa izango da eta, kasu batzuetan, luzatu egin daiteke).

Kontratuaren iraupenaren bukaeran egiten diren kontratu zehatzen iraupenak ezingo du gainditu esparru-akordioaren ondorioak de facto luzatzea ekarriko lukeen eperik.

Esparru-akordio bat partzialki edo osorik hutsik gelditzen bada, edo aurkeztu den enpresen kopurua txikia bada, beste kontratazio-prozedura bat erabili beharko da.

Itzuli

■ 3. FASEA: DISEINUA

3 FASEA: DISEINUA

III. fasea: kontratuaren pleguak diseinatzea

Kontratuaren baldintzen pleguak dira **lizitatzaillei lehia parte hartzeko aukera ematen dieten agiriak**, bai eta kontratuaren **aldagai nagusiak ere**.

Hori dela eta, pleguak egiteko ardura duten erakunde publikoek ahaleginak egin behar dituzte bereizkeriarik eza eta lehia askea bermatzen dituzten plegu xehatu eta zehaztuak egiteko.

Lehiari dagokionez, hauek dira **pleguaren diseinuari buruzko alderdirik garrantzitsuenak**:

1. Lizitazioan parte hartzea
2. Esleitzeko irizpideak
3. Kontratuen iraupena

1. Lizitazioan parte hartzea

Sektore publikoarekin kontraturen bat egin nahi duten pertsona naturalek edo juridikoek **frogatu behar dute jarduteko gaitasun osoa dutela, ez dietela kontratuetan parte hartzea debekatu eta eskatzen den kaudimen ekonomiko-finantzarioa, eta tekniko edo profesionala dituztela**. Gainera, SPKLak hala eskatzen duenean, **behar bezala sailkatuta egon beharko dute (SPKL, 74. art.)**.

Kontratuetan parte hartzeari dagokionez, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan (aurrerago garatuko dira):

- a) Kontratatzeko debekua
- b) Lizitzaileen kaudimena eta sailkapena
- c) Forma juridiko jakin bat izatea
- d) Lurraldearen arabeko bereizkeria
- e) Behar ez diren edo neurrigabeak diren betekizun tekniko eta ekonomikoak
- f) Kalitate-ziurtagiriak

■ 3. FASEA : DISEINUA

A | KONTRATATZEKO DEBEKUA

Lizitazioan parte hartzeko, **operadore ekonomikoek frogatu behar dute ez zaiela kontratatzea debekatu (SPKL, 343. art.)**.

Halaber, administrazio lizitatuzaileek Sektore Publikoko Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofiziala kontsultatu ahal izango dute, operadore ekonomikoek kontratatzeko debekua duten ikusteko (SPKL, 73.2 art.).

B | LIZITATZAILEEN KAUDIMENA ETA SAILKAPENA

Sektore publikoarekin kontratuak egiteko, **operadore ekonomikoek kaudimen ekonomiko-finantzarioa, eta profesionala edo teknikoa frogatu beharko dituzte**. Hori frogatzeko baldintzak kontratazio-organoak zehazten ditu, kasuz kasu; bestalde, SPKLak hala eskatzen duenean, dagokien sailkapena frogatu beharko dute (SPKL, 77.-82. eta 86.-95. art.).

Noiz da ezinbestekoa sailkapena?

Sailkapena ezinbestekoa izango da soilik obraren balioa 500.000,00 eurokoa edo gehiagokoa denean; gainerako kasuetan borondatezkoa izango da. Enpresa sailkatuaren ziurtagiria aurkeztuz gero, ez da beharrezkoa izango beste bitarteko batzuen bidez kaudimena frogatzea.

Nola froga daiteke kaudimena?

Beharrezko kaudimena duela frogatzeko, enpresak beste enpresa batzuen bitartekoak eta kaudimena hartu ahal izango ditu oinarri, haiekin dituen loturen izaera juridikoa edozein izanik ere, betiere frogatzen badu kontratuaren exekuzioak irauten duen denbora osoan kaudimen eta bitarteko horiek izango dituela.

SPKL berriak aukera ematen du kaudimena frogatzeko negozioen urteko bolu-mena aurkezteko (azken 3 ekitaldietan onena aurkeztea, alegia). Obra-kontratuaren kaudimen teknikoa frogatzeko, azken 5 urteetan egindako lanen zerrenda aurkeztu ahal izango da. Enpresa berrien kasuan (5 urte baino gutxiago duten enpresak), 500.000,00 eurotik beherako kontratuetan, ezingo da egindako obraren zerrenda eskatu. Harmonizazioaren mende EZ dauden kontratuetan, beste egiaztatze-metodo batzuk onartuko dira, betiere kontratazioaren espedientean justifikatzen badira.

Lehiaren arloko agintaritzek eta kontratazio-auzitegiek adierazi duten moduan, kaudimena subjektiboa da, kontratu bakoitzaren arabera; beraz, ez dago eska daitekeen kaudimenaren arau orokorrik, kontratuaren xedea eta prestazioa aldatu egiten diren heinean. Ondorioz, kasu bakoitzean zehaztu behar da, eta prestaziora egokitu.

Lizitazio-iragarkiak eta pleguek ez badute gutxieneko kaudimena zehazten, **modu subsidiarioan** aplikatuko dira SPKLren 87.3 artikuluan ezarritako gutxieneko betekizunak.

Ezinbestekoa da kaudimena argi adieraztea eta eska daitekeen gutxienekoa ezartzea; gutxienekorik ez ezartzea kaudimenik ez ezartzea bezalakoa litzateke. Sailkapena eskatzen den kasuetan, eska daitekeen gutxieneko sailkapena adierazi beharko da; hori dagokion ziurtagiria aurkeztuta frogatu ahal izango da, dokumentuak prestatzea errazagoa izan dadin.

■ 3. FASEA : DISEINUA

Kontratazio-organoak askatasunez aukera ditzake irizpideak; hala ere, askatasun horrek irizpide teknikoak izatea eskatzen du, ez modu arbitrarioan jokatzeari. Beraz, eskatzen den kaudimena behar bezala justifikatuta egon behar da.

3. Kasua

Osasun-zentro publikoetan elektromedikuntzako ekipamenduaren mantentze-zerbitzua emateko kontratua. Kaudimen teknikoa frogatzeko eskatzen den esperientziak erreferentzia egiten dio ospitaleetako mantentze-lanei, hau da, kontratuarena baino xede orokorrago bati. Hala, esperientziaren betekizuna ez da zorrotz lotuta egongo elektromedikuntzako ekipoen mantentzeari, hori baita kontratuaren xedea.

Ondorioa:

Eskatzen diren gutxieneko kaudimen-betekizunek lotura izan behar dute kontratuaren xedearekin, eta proportzionalak izan behar

Lehia ahalbidezko eta lizitazioetan ahalik eta eskaintza gehien lortzeko, **gomen-dagarria da kontratazio-organoek kaudimenaren arloko askotariko irizpide alternatiboan alde egitea, irizpide baztergarri bakar bat erabili beharrean.** Kontratazioaren arloko araudiak horretarako aukera ematen du.

Kontratazio-organoak eskatzen dituen kaudimen-irizpideek justifikatuta egon behar dute, arrazoizkoak izan behar dute, ez dute inor baztertu behar eta kontratuaren neurriarekiko eta xedearekiko proportzionalak izan behar dute.

Edonola ere, kaudimena zehazteko, **kontuz jardun behar da, enpresa txikiak eta ertainak kanpoan ez uzteko.**

Zer egin kaudimena zehaztasunez deskribatu ezin denean?

Organismo zehatzen ziurtagiriak aurkeztea edo markak, fabrikazioak, enpresari jakin batek ematen dituen zerbitzuak edo patenteak aipatzea ezinbestekoa denean, **bestela ezinezkoa delako deskribapen zehatz bat egitea, aipamen horietan "edo baliokidea" gehituko da, lizitatzailen arteko bereizkeria saihesteko.**

Sektore publikoko erakunde bereko pleguek antzeko kaudimen-betekizunak eskatu behar dituzte?

Komenigarria da administrazio bereko kontratazio-organoek **euren artean substantzialki berdinak diren kontratuetan antzeko kaudimen-betekizunak eskatzea,** enpresen artean justifikatzeko zailak diren tratamendu desberdinak saihesteko.

3. FASEA: DISEINUA

4. Kasua

Hiri bateko zirkulazioaren informazio- eta kontrol-sistemak kudeatzeko kontratuari dagozkion baldintza teknikoen pleguetan eskatzen diren kaudimenaren gutxieneko irizpideak baliogabetzea.

- Lizitazioaren ezaugarriei erreferentzia egin beharrenean, produktuaren baldintza teknikoei erreferentzia egiten dieten alderdiak eskatzen dira.

- Lizitatuzailea fabrikatzailea izatea eta ikerketa nahiz garapenerako bitartekoak izatea eskatzen da; hori neurrigabea da, prestazioak emateko merkaturatzailea izatea nahikoa denean.

- Betekizun hori lehia askearen kontrakoa da, fabrikatzaileak ez diren merkaturatzaileak lizitaziotik kanpo uzten baititu.

- "Behar besteko babes teknikoa" izatea eskatzen da, zenbakitan, baina ez da atalaserik zehazten, ez baitira bitarteko zehatzak aipatzen. Hori tratu-berdintasunaren kontrakoa da, enpresa guztiek ez baituzte modu berean ezagutzen sarbide-betekizunak; gainera, esleituzaileak modu arbitrarioan jokatzeko ahalbidetzen du.

- Horrez gain, tratu-berdintasunaren printzipioa urratu delako baliogabetu da, ez baitira ISO 9001 eta 14001 ziurtagirien bitarteko alternatiboak onartzen.

Eskatutako kaudimena lausoa edo desegokia bada, pleguak baliogabetu litezke, eta, ondorioz, baita lizitazioa ere. Horrek eraginkortasuna kaltetuko luke eta kontratatzaileak nahiz herritarrek behar baino gehiago ordaindu beharko dute.

5. Kasua

ABEE batean parte hartzen duen enpresa batek kaudimena izatea

Enpresa publiko batek lehiaketa publiko bat deitu zuen, lizitazio baterako, prozedura irekiaren bidez. Horren xedea zen eraikin bat zaharberritzeko ingeniari-tza-zerbitzuak kontratatzea.

Pleguak ABEEak aurkezteko aukera ematen zuen, baina ez zuen elkarte hori osatzen zuten enpresen kaudimena gehitzea baimentzen, eskatutako gutxieneko kaudimena bazuten frogatzeko; hala, elkarteko enpresa bakoitzak frogatu behar zuen kaudimena bazuela.

C | FORMA JURIDIKO JAKIN BAT ESKATZEA

Araudiaren arabera, **debehatuta dago, lizitazioan parte hartzeko, parte hartzaileek forma juridiko jakin bat eduki behar izatea**; izan ere, horrek eskatzen den prestazioa eman dezaketen operadore batzuk lizitaziotik kanpo gelditzea eragin dezake.

Arau orokorrak zenbait salbuespen ditu, esaterako araudiak eska dezake kontratua esleitu ondoren forma juridiko jakin bat eratzea edo hartzea. Hala ere, salbuespen horiek kasu solteak dira, eta araudian agertu behar dira (hori da gizarte ekimeneko Enplegu Zentro Berezien eta laneratze enpresen kasua).

3. FASEA: DISEINUA

6. Kasua

Kontratazio publikoaren prozeduraren 5 faseak

Laguntza medikoaren arloko kontratueta eta antzeko beste zerbitzu batzuetan, pleguak aztertu dira eta ikusi da kontratuaren xede gisa zerbitzu hori ematea adierazi dela; pleguetan ez zaie parte hartzen uzten "enpresetako zerbitzu medikoen mankomunitatearen" forma juridikoa duten lizitatzaleei.

Horrek lehia mugatzen du; izan ere, ez die parte hartzen uzten funtzio hori betetzeko kaudimena frogatzeko gai diren lizitatzaleei, forma juridiko zehatz bat izateagatik.

D | LURRALDE-BEREIZKERIA

Klausuletan ezin da esleipendunaren herritartasunaren, hizkuntzaren, bizi-tokiaren edo lurraldearen eraginezko tratu-desberdinkeria eragin dezakeen erreferentziarik egon, nahiz eta erreferentzia zeharkakoa izan, esate baterako esparru geografiko bati loturiko esperientziari lehentasuna emanez edo esleipendun posibleen instalazioak erreferentzia-lurraldean kokatzeko eskatuz.

7. Kasua

Udal baten HAPOa egiteko kontratu batean, enpresa esleipendunaren taldeburuak EAEko hirigintza- eta ingurumen-araudiak ezagutzea eskatzen zen, eta baldintza hori kaudimen-betekizun gisa ezartzen zen hautaketa kualitatiboaren fasean.

Alabaina, ezagutza hori eta, azken batean, enpresa lizitatzaleen kaudimena, frogatzeko, ezin da eskatu planeamendu-lanak EAEko udalerrietan bakarrik egin izana.

Autonomia-erkidegoari edo udalerriri loturiko araudiaren berezitasuna hirigintza-zuzenbidearen ezaugarri berezkoa da; ondorioz, hari loturiko esperientzia zehatza izateko eskaerak oztopatu egin lezake administrazio-jarduera horretarako sarbide askea.

Kontratazio-organoak lizitaziorako sarbidea galarazten die planifikazioaren arloko lanak egitean esperientzia froga dezaketen enpresei, esperientzia hori beste lurralde batzuetakoa den kasuetan.

8. Kasua

Udalerrri bateko animaliak jasotzeko eta zaintzeko zerbitzua.

Esleipen-irizpidea eta, ondorioz, esleipen-prozesu osoa baliogabetzea, puntuaziorik altuena udalerrri horretan zeuden aterpeei ematen zitzaielako. Irizpidearen puntuazioak banatzeko sistemak abantaila handia ematen zion irizpide hori betetzen zuenari, aterpea 32 km baino gehiagora zuten lizitatzaleen aldean; horiek ez zuten punturik lortzen.

Esleipen-irizpideak justifikatu gabeko modu neurrigabeen abantailak ematen zizkien udalerrian bertan animalientzako aterpe bat zuten lizitatzaleei, eta kaltetu egiten zituen beste udalerrri batzuetan aterpeak zituztenak, nahiz eta pleguko gainerako baldintzak bete. Hori dela eta, irizpidea baliogabetzea erabaki zen.

Horrez gain, adierazi beharra dago irizpideak lizitatzale posibleei emango zaizkien puntuazioak aurrez ezagutzeko aukera ematen duela; izan ere, esleitzaleak aurretik jakin dezake zein lizitatzale dauden udalerrian bertan eta zein ez; ondorioz, aurretik eta modu arbitrarioan modula ditzake kontratua exekutatzeko gai diren lizitatzaleei emango dizkien puntuazioak.

3. FASEA: DISEINUA

E | BEHARREZKOAK EZ DIREN EDO NEURRIGABEAK DIREN BETEKIZUN TEKNIKOAK ETA EKONOMIKOAK

Kontratuaren xede diren ondasunei dagokienez, **debeakututa dago tipologiak, markak edo zehaztapen teknikoak aipatzea lizitazioan parte hartzeko baldintza gisa.**

Halaber, **saihestu egin behar dira karga ekonomiko neurrigabea lekarten eskakizunak, besteak beste erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzea, kontratuaren xedeari dagokionez gehiegizkoa den zenbatekoan.**

9. Kasua

Bitarteko tekniko neurrigabeak

Interpretazio-zentro baten proiektua egin, ekoitzi eta muntatzeko kontratua.

Baldintza tekniko gisa, enpresak honako hauek zituen talde bat izatea eskatzen zen: historialari bat, tokiko gaietan aditu bat, erakusketa-sistema berezietan aditu bat, arkitekto bat, diseinatzaile grafiko bat, arkeologo bat, museologo bat, ikus-entzunezko sistemen diseinatzaile bat eta argien teknikari bat. Hain talde konplexua izateko beharra gainditu ezinezko oztopoa izan daiteke bestela jarduera behar bezala gauzatzeko gai izan daitezkeen enpresa batzuentzat.

10. Kasua

Kalitate ziurtagiriak eskatzea

*SPKLk esaten du administrazio publikoek erabakitzen badute kontratazio publikoen pleguetan **kalitate-ziurtagiriak eskatzea, Egiatzapenerako Erakundeen Erregistroak egiaztatutako edozein erakundek emandako ziurtagiriak onartu beharko dituela, baita erakunde horrekin hitzarmena duen beste edozein ziurtatze-erakundek emandako ziurtagiriak ere (SPKL, 93. art.).***

Gainera, pleguetan ezin da ziurtatze-erakunde zehatzik aipatu.

Kontratazio-organismoek ontzat emango dituzte Europar Batasuneko edozein estatu kideetako organismok emandako ziurtagiri baliokideak, eta enpresek aurkez ditzaketen kalitatea bermatzeko beste froga batzuk ere onartuko dituzte.



■ 3. FASEA: DISEINUA

F | KALITATE ZIURTAGIRIAK
ESKATZEA

SPKLk esaten du administrazio publikoek erabakitzen badute kontratazio publikoen pleguetan **kalitate-ziurtagiriak eskatzea, Egiaztapenerako Erakunde Nazionalak egiaztatutako edozein erakundek emandako ziurtagiriak onartu beharko dituela**, baita erakunde horrekin hitzarmena duen beste edozein egiaztatze-erakundek emandako ziurtagiriak ere (SPKL, 93. art.).

Gainera, **pleguetan ezin da egiaztatze-erakunde zehatzik aipatu**.

Kontratazio-organoez ontzat emango dituzte Europar Batasuneko edozein estatuko kidetako organismok emandako ziurtagiri baliokideak, eta enpresek aurkez ditzaketan kalitatea bermatzeko beste froga batzuk ere onartuko dituzte.

G | LOTETAN BANATZEA

SPKLren 99.3 artikulua ezartzen du kontratuaren xedea lotetan banatu behar dela kontratuaren izaerak edo xedeak horretarako aukera ematen duen guztietan.

Betebehar orokor horrek, baina, salbuespenak ditu, horretarako arrazoiak daudenean; arrazoi horiek behar bezala justifikatuko dira espedientean, obren emakidei buruzko kontratuetan izan ezik.

Edonola ere, kontratuaren xedea lotetan ez banatzeko arrazoi onargarriak izango dira honako hauek:

- Kontratuaren xedea lotetan banatzeak lehia justifikatu gabeko moduan mugatzea dakarrenean. Kasu horietan, kontratazio-organok dagokion **lehia defendatzeko agintaritzari aurretiko txostena** eskatu beharko dio, egoera hori ematen den adieraz dezan.
- Kontratuaren xede diren prestazioak modu independentean emateak zaildu egiten duenean hura behar bezala exekutatzeko, ikuspegi teknikoetik. Edo, bestela, kontratuaren xedeak berak hori egitea ezinezko bihurtzen duenean. Muturreko bi kasu horiek behar bezala justifikatu beharko dira espedientean.

Horrez gain, 99. artikuluko 4. paragrafoan esaten denari jarraikiz, mugatu egin daiteke lizitatzailerik batek zenbat lotetara aurkez ditzakeen eskaintzak, baita lizitatzailerik bakoitzari zenbat lote eslehi dakizkiokeen ere. Neurri horiek ezohikoak dira, eta beti justifikatu behar dira.

■ 3. FASEA: PLEGUAK DISEINATZEA

2. Esleipen-irizpideak



ZER DIRA ESLEIPEN IRIZPIDEAK?

Esleipen-irizpideak lizitatzailleek aurkezten dituzten eskaintzak baloratzeko erabiltzen direnak dira, kontratua esleitu ahal izateko. Irizpide horiek **lotura izan behar dute kontratuaren xedearekin, objektiboak izan behar dute, argitaratu egin behar dira eta pleguetan agertu behar dute, zenbatespenarekin batera.** Horrez gain, eskaintzen arteko **berdinketak ebazteko irizpideak** egon beharko dira, irizpide objektiboen arabera, eta eskaintzetan egindako hobekuntzak zenbatesteko irizpideak ere (SPKL, 145.-147. art.).

SPKLk, nahiz jurisprudentziak eta doktrinak, garbi ezartzen dute **kaudimena dela enpresen gaitasuna neurtzeko elementua; esleipen-irizpideek, berriz, eskaintzaren ezaugarriak neurtu behar dituzte..**

Espedientean balorazio-formula horiek aukeratu izana justifikatu behar da.



ZEIN ESLEIPEN-IRIZPIDEK DU LEHENTASUNA?

Esleipena, ahal dela, **askotariko irizpideak** erabiliz egingo da, **kalitate-prezio harremanik onena oinarri hartuta**, kontzeptu horrek ordezkatzen du ekonomikoki onuragarriena den eskaintzaren kontzeptua.

Ahal den guztietan, lehentasuna emango zaie formulen aplikazioaren bitartez baloratu daitezkeen kontratuaren xedearen ezaugarriei.

Kalitate-prezio harremanik onena irizpide ekonomikoak eta kualitatiboak kontuan hartuta egin beharko da.



ZER DIRA IRIZPIDE KUALITATIBOAK?

Kontratazio-organoek bermatu behar dute esleipen-irizpideek aukera ematen dutela kalitate handiko prestazioak jasotzeko; horretarako, **irizpide kualitatiboak**, ingurumenari buruzkoak, sozialak eta berritzaileak txertatuko dira. Dena den, irizpide horiek kontratuaren xedeari lotuta egongo dira. Kontratazioa beste politika publiko batzuk lortzeko tresna gisa ulertzeko modu berri horren eraginez, kontratazio-organoek eta lizitatzailleek aldaketak egin beharko dituzte eskaintzak diseinatu eta aurkezterakoan, baldintza kualitatibo horiek bete ahal izateko.

SPKLk, besteak beste alderdi hauek hartzen ditu aintzat: kalitatea, balio teknikoa barne, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, irisgarritasuna, diseinu unibertsala, gizarte-ezaugarriak, ingurumen-ezaugarriak eta berrikuntza, berotegi-gas gutxiago isurtzea, energia aurrezteko eta eraginkortasuna hobetzeko neurriak, desgaitasunen bat dutenen gizarteratzea sustatzea, laneratzea eta gizarteratzea, eta genero-berdintasun planak.

3. FASEA: PLEGUAK DISEINATZEA



ZERK AGERTU BEHAR DU KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAN, ESLEIPEN-IRIZPIDEEI DAGOKIENEZ?

Lizitatzailleek nahikoa denborarekin izan dezaten esleipen-irizpideen berri, **kontratazio-espeditenteak balorazio-formulen justifikazioa hartu behar du barne:**

- Kontratuaren xedeari lotuta egon behar dute.
- Objektiboak izan behar dute.
- Benetako lehia bermatu behar dute.
- Aurretik argitaratu behar dira.
- Hobekuntzak esleipen-irizpide gisa txertatzea mugatzen da; gehienez ere puntuazio osoaren %2,5 izango dira.
- Eskaintzen berdinketak ebazteko irizpideak gizarte-irizpideen arabekoak izango dira.

11. Kasua

Unibertsitate publiko batek ekipamendu informatikoa hornitzeko enpresak hautatzeko prozedura abiarazi du; esparru-akordioaren pleguetan jasotako esleipen-irizpideetako bat "marka" da.

Ez dago loturarik aipatutako hiru azpi-irizpideen eta ekonomikoki onuragarriena den eskaintza identifikatzearen artean. **Merkatuan onarpen handia duen marka edo produktu bat izateak ez du inolako loturarik administrazioaren beharrak ahalik eta hoberen betetzeko alderdiak identifikatzearekin**, eta horixe da esleipen-irizpideek bilatzen dutena. Marka (edo produktua) asko saltzeak ez dio objektiboki inolako balio teknikorik, kalitaterik edo funtzionaltasun onuragarririk gehitzen unibertsitatearentzat. Gainera, lehia askearen kontrakoa eta baztertzaila da, esate baterako erosle gutxi edo zehatzak dituzten marka espezializatuen kaltetan, baita merkatuan sartu berri diren enpresen eta esparrua duela gutxi zabaldu duten enpresen (batzuetan, eskaintza berritzaileekin) edo esparru geografiko mugatu aritzen diren enpresen kaltetan ere, nahiz eta baliteke enpresa horiek objektiboki onuragarriagoak diren eskaintzak proposatu ahal izan prezioari eta prestazioei dagokienez.

ESLEIPEN-IRIZPIDEEI DAGOKIENEZ SAIHESTU BEHARREKO EDO KONTUAN IZAN BEHARREKO XEDEAK ETA KONTUAK

TRATU BERTINTASUNA ETA BAZTERKERIARIK EZA BERMATZEA	OINARRIZKO ALDAGIAIK BEHAR BEZALA HAZTATZEA	IRIZPIDEAK XEHETASUNEZ DEFINITZEA	SAIHESTU BEHARREKO BESTE BATZUK
1. Esperientzia baloratzea	4. Balorazio-irizpideak behar bezala ez haztatzea	8. Balorazio-irizpideak behar bezala ez definitzea	9. Gardentasunik eza
2. Beste kontratu batzuk behar bezala bete direla baloratzea	5. Prezioa edo tarifaren eragina behar bezala ez islatzea		10. Eskaintzen ezohikotasunaren atalasea ex ante ezagutzea
3. Erosleentasun- eta bestelako lehentasun-eskubideak	6. Prezio, tarifa eta bestelakoei mugak jartzea		11. Kaudimena aztertzean jada baloratutako elementuei puntuak ematea
	7. Garrantzitsuak ez diren edo kostu gehigarriak dakartzaten irizpideei garrantzi handia ematea		

■ 3. FASEA: PLEGUAK DISEINATZEA

Tratu-berdintasuna eta bazterkeriarik eza bermatzea

1| ESPERIENTZIA BALORATZEA

**ESPERIENTZIA ESLEIPEN-IRIZPIDE IZAN DAITEKE?**

Lizitzaileen esperientzia ezin da esleipena lortzeko parametro puntuagarri izan

Ulertu beharra dago **eskatutako kaudimena frogatzen duten enpresa guztiak gai direla kontratua betetzeko**; ondorioz, esleipena beste irizpide batzuen arabera egin behar da.

12. Kasua

Hainbat administrazio publikok sustatutako obra-lizitazio batean, esleipen-irizpideak antzeko obrak egiten esperientzia izatea, ISO 14001 ziurtagiria izatea eta obra egingo den udal-esparruan gizarte- eta kultura-proiektuetan inbertsioak egin izana dira.

Lehen bi irizpideak enpresa lizitzailearen kaudimena frogatzen dute; ondorioz, ezin dira lizitazio-irizpide gisa erabili.

13. Kasua

Hainbat eraikinetarako segurtasun-zerbitzua eta zerbitzu osagarriak.

Pleguetan ageri den esleipen-irizpide hau aztertu da: erantzukizun-asegurua gutxienez gora egotea.

Enpresaren erantzukizun zibileko asegurua arrisku profesionalak ere barne hartzen dituena, hautaketa irizpide kualitatibo bat frogatzeko bitartekoa da, hain zuzen ere kaudimen ekonomiko eta finantzarioa frogatzeko; ondorioz, funtsean lotuta dago lizitzaileek kontratua gauzatzeko duten gaitasunari, baina ez da egokia irizpide hori ekonomikoki onuragarriena den eskaintza identifikatzeko irizpide gisa erabiltzea.

Itzuli

2| **BESTE KONTRATU BATZUK BEHAR BEZALA BETE DIRELA BALORATZEA****KONTRATU BAT BETETZEA ESLEIPEN-IRIZPIDE IZAN DAITEKE?**

Administrazioaren ustez lizitzaile batek kontratu bat behar bezala bete duela uste izatea ezin da irizpide gisa erabili beste kontratu bat esleitzeko; izan ere, horrek oztopatu egiten du lizitzaile berriak sartzea.

Aurreko kontratuak ondo egin izana saritu nahi bada edo zerbitzua txarto ematea ekidin nahi bada, etorkizuneko lizitazioetan abantailarik ekarriko ez duten mekanismoak aurreikusi eta aplikatu beharko dira.

Itzuli

■ 3. FASEA: PLEGUAK DISEINATZEA

3| LEHENTASUNEZ EROSTEO ETA BESTELAKO LEHENTASUN-ESKUBIDEAK



EROSLEHENTASUN ETA ANTZEKO ESKUBIDEEK LEHIA MURRIZTEN DUTE?



SALBUESPENA: ARAUDIAK BIDAIARIEN GARRAIORAKO LEHENTASUN-ESKUBIDEA JASOTZEN DU

Lehentasunez erosteko eta bestelako lehentasun-eskubideak debekatuta daude, abantailak ematen dizkiolako egungo kontratuaren titularrari, hark nahi badu abantaila horiek erabil ditzan. Zehazki, baliteke era horretako eskubideak dituen lizitatzailer bati besteei baino puntuazio handiagoa ematea, gainerako lehiakideen kaltetan.

Bidaiarien garraioari buruzko estatuko nahiz erkidegoko araudiak, tradizioz, titularren aldeko lehentasunaren eskubidea jaso du (16/1987 Legea, uztailaren 30ekoa, Lurreko Garraioaren Antolaketari buruzkoa. 182. BOE, 1987ko uztailaren 31koa).

Lurreko Garraioaren Antolaketari buruzko Legearen 74. artikulua **oraindik ere enpresa emakidadunei ematen die lehentasuna zerbitzuak esleitzeko lizitazioetan berdinketa gertatzen bada:**

Kontratu berri baten helburua aurrez ematen zen zerbitzu bat kudeatzea baldin bada, aurreko kontratistari esleituko zaio, beti ere hark aurreko kontratua behar bezala bete badu eta haren eskaintzari emandako balorazioa aurkeztutako gainerakoek berbera edo hobe bada.

14. Kasua

Elkarte batek ikasleen erabilera bereziko garraio-zerbitzu arrunt bat ematen zuen Gasteiz-Bilbo eta Gasteiz-Leioa ibilbideetan, maiztasun zabal eta malgu batekin. Administrazioak jarduera hori gauzatzeko administrazio-baimen berezia ukatu zien elkarteak kontrataturiko garraiolari, arrazoi hauek zirela eta: (i) bi hiriburuen artean erabilera orokorreko garraio-zerbitzu arrunta esleituta zuen enpresaren aldeko lehentasunaren eskubidea aplikatu zen; eta (ii) baimen-eskaera ez zen egiaztatu ibilbide guztietan talde homogeneoa eta espezifiko egotearen eskakizuna.

Erabaki zen, azkenik, lehia egotea, erabilera orokorreko garraio arrunta esleitua zuen titularren lehia, funtsean erabilera bereziko ohiko garraioaren bidez garatu daitekeena, komenigarria dela beste enpresa batzuek merkatura sartzeko eta zerbitzuak eman ahal izateko aukera izan dezaten, eta lehia hori ezinbestekoa dela.

Lehentasun-eskubideak oso polemikoak dira lehia-araudiaren ikuspegitik, merkatura sartzeko berdintasunaren eta enpresa-askatasunaren printzipioak urratzen baitituzte. Horrelako mugak bereziki kaltegarriak dira lehiarentzat; izan ere, administrazio-emakidak ustiatzeko eskubide eskusiboak eman ohi diren merkatuetan dihardute, eta emakidadunei monopolioak ematen zaizkiela esan nahi du horrek .

15. Kasua

Hiri-arteko autobusen emakida baten esparruan, emakidadunaren aldeko lehentasun- eta lehentasunez erosteko eskubideak ez dagozkie indarrean dagoen emakida amaituta deitu daitezkeen lizitazioei, baizik eta emakida horren "paraleloan" eman daitezkeen beste zerbitzu batzuen esleipenei.

Hori gertatzen da, adibidez, hiri-arteko ohiko garraio orokorreko zerbitzuen emakidadunentzat ezarritako lehentasun-eskubideekin, erabilera bereziko garraioari dagokionez (hala nola eskola-garraioa).

Lotura horrek zaildu egiten du hiri-arteko garraioaren emakidadun ez diren operadoreak erabilera bereziko garraio-zerbitzuetan sartzea.

■ 3. FASEA: PLEGUAK DISEINATZEA

Oinarrizko aldagaiak behar bezala ez haztatzea

Eskaintzak baloratzeko kontuan hartzen diren **elementuek**, eta **balorazio osoan horietako bakoitzari ematen zaion pisuak**, oinarrizko lehia-elementuei garrantzia eta lehentasuna eman behar diete. **Ahal dela, haztaperen oreka ezarri beharko luke prezioaren eta beste irizpideen artean.**

4| BALORAZIO-IRIZPIDEAK BEHAR BEZALA EZ HAZTATZEA



NOLA HAZTATU BEHAR DIRA ESLEIPEN-IRIZPIDEAK?

Esleipen irizpideen haztaperen alde aurretik espedienteen justifikatuta egin behar da, kontratuaren azken helburuarekin duen loturan eta produktu edo zerbitzuen bizi-zikloarekin lotutako kostu-eraginkortasun irizpideetan oinarrituta.

Itzuli

5| PREZIOA EDO TARIFAREN ERAGINA BEHAR BEZALA EZ ISLATZEA



NOLA ERAGITEN DUTE PUNTUAZIOEK ETA HAZTAPEREN ESKAINTZEN PREZIOAN?

Eskaintzen prezio edo tarifei ematen zaion puntuazioak haren malgutasunarekiko proportzionala izan behar du, kontratuaren esleipena erabakitzean parametro horren **eragina jasotzeko**.

Alde horretatik, kontzeptu horregatik puntuaziorik handiena ez bazaio ematen prezio edo tarifarik txikiena duenari, baizik eta haren prezio- edo tarifa-maila aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoari gehien hurbiltzen zaionari, aukera galtzen ari da eskaintza ausartagoak lortzeko (hau da, prezio txikiagokoak), eta, era berean, eskaintzak lehia-prezioaren gainetik lerrotzea sustatzen da (batezbestekoan kokatuko liratekeelako).

16. Kasua

Errepide bat egiteko ikerlan tekniko bat idazteko aholkularitza-kontratu batean, pleguek xedatzen zuten eskaintza ekonomikoan puntuazio handiagoa eman behar zitzaiela onartutako eskaintza guztien batezbesteko aritmetikoari gehien hurbiltzen zirenei. Erabaki zen hori egitea Europako kontratazio-zuzentarauen kontrakoa zela, ekartzen baitu eskaintza garestiagoek beste merkeago batzuek baino puntuazio hobe lortzea, batezbestekotik hurbilago egoteagatik.

17. Kasua

Kontratazio-prozedura batean, eskaintza batzuk kanpoan geratu dira beste eskaintzen batezbestekoaren arabera oso baxuak direlako. Puntuazio-sistema horrek prezioaren aldagaiaren balorazio ez-eraginkorra dakar, eta onartezina da, batez ere ekonomikoki onuragarriena den eskaintzaren printzipioaren aurkakoa delako. Zerbitzuaren prezioa baloratzen denean, abantaila ekonomikoa preziorik txikienekin identifikatzen da, hau da, eskaintzaileek gehieneko prezioari egiten dizkieten beherapenekin.

Berdintasun-printzipioak eragotzi egiten du puntuazio bera ematea onuragarritasun desberdina duten eskaintzei, nahiz eta biek gainditu duten beherapen-portzentaje jakin bat lizitazioaren zenbatekoari dagokionez.

Kanpoan geratuko dira, bakar-bakarrik, prezio txiki neurrigabea dutenak, horretarako pleguetan aurreikusitako mugak gainditzen badituzte.

Itzuli

■ 3. FASEA: PLEGUAK DISEINATZEA

6| PREZIO, TARIFA ETA BESTELAKOEI MUGAK JARTZEA

**MUGAK JAR DIEZAIZKIEKE
ESKAINZTA EKONOMIKOEI?**

Araudiaren arabera, **mugak jar daitezke eskaintza neurrigabeak edo ausartegiak ez daitezen aurkez**, baina saihestu egin behar da haiei balio absolutua ematea, ez daitezen interferentziak egon prezioak eskaintzeko pizgarrietan, informazio hori azaleratzeak larriki mugatu baitezake lehia.

Edonola ere, **mugak objektiboak behar dute izan, eta dagokien pleguetan aurreikusita egon.**

18. Kasua

Ohiko garraio-zerbitzuaren lizitazio-pleguetan gehieneko mugak jarri zitzaizkien tarifaren eta maiztasun-kopuruaren parametroen hobekuntzei.

Horrek eragotzi egiten du lizitatuzaileek puntuazioa hobetu ahal izatea beren eskaintzan muga horiek gaindituz, hau da, muga horiek gabe lor litekeen hobekuntza-bidea erraz ahitzen dute.

19. Kasua

Erakunde publiko batentzako obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzeko arau eta baldintza orokorrek kontratuaren prezioa ezartzen dute esleipen-irizpide posibleen artean; eskaintzarik merkeenari 100 puntu ematen dizkiote.

Beste eskaintza guztiei, baita garestienari ere, gutxienez 30 puntu ematen zaizkie.

Oro har prezioaren haztatzeari 30 puntu gehitzeak prezioaren balorazio desegokia egitea dakar, ekonomikoki eraginkorra den eskaintzaren benetako haztatzea murrizten baitu, eta, gainera, pizgarria kentzen dio lizitatuzaileek eskaintako prezioari beherapen handiak aurkezteari.



■ 3. FASEA: PLEGUAK DISEINATZEA

7| GARRANTZITSUAK EZ DIREN EDO KOSTU GEHIGARRIAK DAKARTZATEN IRIZPIDEEI GARRANTZI HANDIA EMATEA



EDOZEIN BALORAZIO-IRIZPIDE ERABILI DAITEKE?

Ez zaie sartzea mugatu behar enpresa eta lizitatzaille berriei, zerbitzua gauzatzeko garrantzi txikia duten irizpideak ezarrita, gainera, lizitatzailleentzako karga ekonomiko bat direnean. Baldintza horiek ezinbestekotzat jotzen badira, pleguetan bertan gauzatzeko baldintza berezitat ezarri beharko lirateke.



ZER GERTATZEN DA LANGILEEK LANEAN JARRAITZEA BERMATU BEHAR DENEAN?

Zerbitzu publikoak emateko kontratuen kasuan, indarrean dagoen kontratistaren kontratuaren kudeaketari lotutako lan- edo antolakuntza-baldintza jakin batzuei eustea bermatzeko eskaerak sartuko diren berrien auto-antolaketarako aukera murrizten du, eta kostuak aurrezteko zailtzen du, baita indarreko kontratuaren titularrari eragiten ez dion karga gehigarri bat ezarri ere. Horregatik, langileek jarrai dezaten ziurtatzeko, **kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ezar litezke, esleipenerako irizpide puntuagarritzat hartu gabe.**

20. Kasua

Segurtasun-enpresa batek zaintza- eta laguntza-zerbitzuak emateko kontratu bateko baldintza teknikoaren pleguaren aurka jarritako kontratazio arloko errekurtsio berezi bat; han, behartzen zen soldata eta lan-baldintzen arloan, gutxienez, jarduera horri aplika ziezaiokeen sektoreko hitzarmen kolektiboa errespetatzera.

Lan arloko legeriari jarraikiz, posible da esleipendunak, hainbat arlotan, sektoriala ez den beste hitzarmen kolektibo bati jarraitzea. Hori gertatuko litzateke, adibidez, lizitatzaille batek enpresako hitzarmen bat badu, hitzarmen horrek aplikatzeko lehentasuna baitu zenbait arlotan sektoreko hitzarmenaren aurrean (LEren 84. art.), edo beste lizitatzaille baten kasuan, LEko 82. artikulua arautzen duen soldata-erregimena ez aplikatzeko prozedurari jarraituz, hitzarmen kolektiboko gai jakin batzuk ez aplikatzeko aukera baitu. Bi neurriak uztailaren 6ko 3/2012 Legearen III. kapituluak ezarri zituen, lan-merkatua erreformatzeko premiazko neurriaren inguruan, negoziazio kolektiboa tresna bat izan dadin eta ez oztupo bat lan-baldintzak enpresaren inguruabar zehatzei egokitzeko.

Horrek dakar, LEren babespean zilegitasunez eraturako enpresariaren eta langilearen arteko legezko harremanei eduki jakin bat ezarri nahi dien kontratu-balioespen bat, mugatzat ordenamendu juridikoa errespetatzea duen SPKLTBko 25. artikulua araututako ituntzeko askatasunaren printzipioaren aurkakoa izatea.



■ 3. FASEA: PLEGUAK DISEINATZEA

Irizpideak xehetasunez definitzea

Balorazio-irizpideek argi islatu behar dituzte helburu espezifikoak, horiek betetzea puntuatzeko asmoa baldin badago; enuntziatuaren zehaztasun gabezia saihestu behar da bereziki, edo bitartekoak helburuekin nahastea.

21. Kasua

Esleipen-irizpideek ezin dute, kontratua esleitzen duen organoa inolaz lotzen ez duten bezain zehaztasun gabeak edo orokorrak izan; izan ere, horrek erraztu egiten du botere esleitzailak arbitrarioki eta tratu-berdintasunaren printzipioaren kontra jokatzeko. Eztatadaturako irizpidea horrela dago; alde batetik, lizitatuzaileek ezin dute egoki prestatu eskaintza, eta, bestetik, organoarentzat ezinezkoa da administrazioaren eskumen teknikoaren kontrolatzea, ez baitago pleguetan hura gauzatzeko aurretiazko mugarik.

8| BALORAZIO-IRIZPIDEAK BEHAR BEZALA EZ DEFINITZEA



BALORAZIO-IRIZPIDEAK XEHEKI DEFINITU BEHAR DIRA?

Organo esleitzailak egoki definitu behar ditu irizpideak, horietako bakoitzaren helburuak argi azalduta. Helburu batzuen arabera irizpide bat definitu ondoren, lizitatuzaileari askatasuna eman behar zaio egoki iruditzen zaion moduan antolatzeko.

Puntuazio-irizpideek balio-judizioak edukitzekotan, xeheki deskribatu beharko dituzte azpi-irizpideak, baita bakoitzari emango zaion puntuazioaren berri eman ere.

22. Kasua

Administrazio batek lehiaketa irekia deitu zuen 48 zubiren ikuskatze-zerbitzua kontratatzeko. Pleguan lau balorazio-irizpide zeuden: eskaintza ekonomikoa, lanak egiteko egitaraua, hobekuntzak eta epea txikitzea. Pleguek ez zuten zehazten zer ziren "hobekuntzak" eta "lanak egiteko egitaraua"; beraz, balorazio irizpide zehaztugabeak ziren.

Administrazio batek komunikabideetan kanpaina bat zabaltzeko zerbitzu bat kontratatzeko lehiaketara deitu zuen pleguetan balorazio-irizpideak zehaztu gabe.

Azalera handiko saltoki bat jartzeko lursailak ordenatu aurreko hitzarmen urbanistiko bat esleitzeko lehiaketa bateko pleguek esleipen-irizpide hauek definitzen zituzten: lursailen kokagunea, eraikiko zen saltokiaren ezaugarriak eta lizitatuzaileen ekarpen ekonomikoa. Pleguek ez zeukaten zehaztaperen gehigarri irizpide horiek ebaluatzeko moduari zegokionez, eta, hala, ez zioten mugarik jartzen administrazio-organoren eskumenari, lizitatuzaileen babesgabetasuna saihesteko beharrezkoak direnak.

■ 3. FASEA: PLEGUAK DISEINATZEA

Saihestu beharreko beste batzuk

9| GARDENTASUN ESKASA BALORAZIO-IRIZPIDEEI PUNTUAZIOA EMATEKO SISTEMAN



**GARDENTASUNIK IZAN
BEHAR DA PUNTUAZIOA
EMATEKO SISTEMARI
DAGOKIONEZ?**

Oro har, **lizitatzailerei azaldu behar zaizkie puntuazioak erabakitzen dituzten parametroak eta mekanismoa**, organo esleitzailerearen gehiegizko eskumenak mugatzeko.

Era berean, hobe da bi ebaluazio bakarrik lortzeko aukera besterik ematen ez duten puntuazioak ez izatea; minimoa, adibidez 0 puntu emango zaizkiona, eta maximoa, hautatu den zifrarekin baloratuko dena; bi muturreko balio horien tarteko puntuazioak onartu beharko lirateke.

Itzuli

10| ESKAINTZEN EZOHIKOTASUNAREN ATALASEA EX ANTE EZAGUTZEA



**SAR DAITEZKE HAIETATIK
AURRERA ESKAINTZAK
NEURRIGABETZAT HARTUKO
DIREN GEHIENEKO MUGA
EDO ATALASEAK?**

Pleguek eskaintza anormalak edo neurrigabeak identifikatzeko mekanismoak bildu behar dituzte. Alde horretatik, eskaintza abusatzaile horiek identifikatzeko mekanismoa ezarri arren, ez dute "gehieneko lehia-atalase" absolutua ezarri behar, muga hori alde aurretik jakiteak lehia larriki mugatu baitezake.



**ZEIN IRIZPIDERI JARRAIKIZ
HAR DAITEKE ESKAINTZA
BAT NEURRIGABETZAT?**

Eskaintza anormala identifikatzeko, kontratazio-organoez irizpide hauei jarraitu behar diete:

- Esleipen-irizpide bakarra prezioa bada, jasotako baliozko eskaintza guztien erreferentziaz zehaztuko da anormaltasun-atalasea, eta arauz ezarritako parametroen arabera.
- Irizpide asko badaude, pleguek ezarritakoari egingo zaio kasu, eskaintza bat anormaltzat edo neurrigabetzat jotzeko mekanismoen definizioa jasoko baitute.

Itzuli

3. FASEA: PLEGUAK DISEINATZEA

23. Kasua

Udalerrri bateko aparkaldi mugatuko guneetan aparkalekuen ordutegia kontrolatzeko zerbitzua emateko kontratua.

Klausula administratibo-ekonomikoen pleguak zifra edo portzentajeetan ezartzen ditu balora daitezkeen irizpideak, gehienez 55 punturekin, eta balio-judizioen menpe dauden irizpideen puntuazioa gehienez 45 punturekin.

Eskaintza ekonomiko neurrigabe edo ausartegiei dagokienez, pleguak halakotzat dauzka beherapen portzentajea lizitazio-tipoaren %10 baino handiagoa dutenak.

Errekurtso berezien organoak plegua baliogabetu zuen esleipen-prozeduraren arau erregulatzailerak hausteagatik, ausarkeria-atalasea balio absolutu baten araberakoa baitzen, lizitazio-tipoaren araberakoa.

11| KAUDIMENA AZTERTZEAN JADA BALORATUTAKO ELEMENTUEI PUNTUAK EMATEA



NOLA SAIHESTU KAUDIMENA BALORATZEKO ERABILITAKO IRIZPIDEAK ETA ESKAINTZA BALORATZEKOAK GAINJARTZEA?

Askotan zaila da erabakitzea erakunde baten kaudimena baloratzeko erabili ziren irizpideak berriro erabiltzen ari diren balorazio-irizpidetzat.

SPKLk debekatuta dauka. Beharrezkoa da baloratutako ezaugarrietan arreta jartzea eskaintzaren edukari lotuta, gainjartzea saihesteko. Horregatik, **garrantziko kalitate-ezaugarriek eskaintzaren edukiarekin lotuta egon behar dute, eta lortu nahi diren kalitate-helburuekin lotutako elementu funtzionalak islatu.**

3. Kontratuen iraupena (SPKL, 29. art.)



KONTRATUEN IRAUPENA (SPKL, 29. ART.)

Kontratu bakoitzaren iraupena faktore askoren araberakoa izango da. Kontuan hartu beharko da **nola ematen den zerbitzua, finantzaketa-ezaugarriak** eta egindako inbertsioei dagokien amortizazio-epea kontratuaren iraupen egokia zehazteko.

Epe luzeegiek kontratuak iraun artean operadore berriak sartzeari zailduko dute, baina epe motzegiak jartzeak exekuzio-epean amortizatu ezin daitezkeen inbertsioak egin behar dituzten operadore berriak sartzeari zail dezakete.



ZER BALDINTZA BEHAR DIRA KONTRATU PUBLIKO BAT LUZATU AHAL IZATEKO?

Luzapenak dagokien **pleguetan jaso behar dira.**

Berritasun gisa, SPKLk adierazten du kontratazio-organismoak erabakiko duela **luzapena**, eta **bete beharrezkoa** izango dela enpresariarentzat, baldin eta aurre **abisua gutxienez bi hil aurretik egiten bada.**

Kontratu bat bukatu eta jarraipena ziurtatzen duen berria ez bada formalizatu **aurreikusi ezin daitezkeen gertakariak** direla medio, jatorrizko kontratua **gehienez ere bederatzita hilabete luzatu ahal izango da**, kontratu berriaren lizitazio-iragarkia jatorrizko kontratua bukatu baino hiru hilabete lehenago argitaratu bada.

■ 3. FASEA: PLEGUAK DISEINATZEA



NOLA TXIKITU KONTRATUEN LUZAPENEKIN LOTUTAKO ARRISKUAK?

- Kontratuak lehiara atera behar dira aldian-aldian
- Luzapenak ez dira bat-batean edo aurreikusi ezin daitezkeen gertakarien kasuan eman behar, salbuespenak salbuespen
- Luzapenera salbuespenez besterik ez da jo behar.
- Kontratuaren epeak lotuta egon behar dira, zuzenean, kontratua exekutatzeko beharrezko inbertsioen amortizazioarekin.
- Kontratuaren gehienezko epea ez da ezinbestean bukatu behar

24. Kasua

JANek ebatzi zuen ilegala zela hamar urtez luzatzea hiriko hondakin solidoak jaso eta garraiatzeko eta bide-garbiketarako indarreko udal-zerbitzu publiko baten emakida, Administrazioak kontratua ez betetzearen edo ez ordaintzearen ondorioz emakidaren oreka ekonomikoa aldatzeagatik eman baitzen, arrazoi hauengatik:

- Aukera hori ez zen aurreikusten kontratuaren pleguetan.
- SPKLk oreka ekonomikoa berriz ezartzeko kontratua luzatzeko aukera ematen du egoera jakin batzuetan bakarrik, hala nola administrazioaren borondateak eta jarduketak aldaketak eragin badituzte.

Itzuli



4. FASEA: GARAPENA

Lizitazio publikoko prozedura garatzea

Berdintasuna informaziorako sarbidean



INFORMAZIORAKO SARBIDEAN BERDINTASUNA EGOTEAK DESBERDINTASUNAK, FAVORITISMOAK ETA USTELKERIA ERAGOZTEN DU.

Pleguek bidezkoa **den informazio tekniko eskuragarri guztia jaso behar dute**, lizitatuzaileek eskura dagoen informazio guztiaren berri izan dezaten eskaintza prestatu eta kontratua exekutatu orduko.

Informazioa jasotzean asimetriak egoteak lizitatuzaileen arteko desberdintasunak sor ditzake, eta kontratuaren eskakizunak sakonago ezagutzen dituenari mesede egin.

SPKL berriak **informaziorako sarbide berdintasuna azpimarratzen du iruzurrari, ustelkeriari eta lehia murriztu lezaketen interes-gatazka posibleei aurre egiteko neurri moduan (SPKLren 64. Art.).**

Beharrezkoak ez diren eskaerak, eta okerrak zuzentzea



ESKAERA ADMINISTRATIBOEN EZ DIE JARRI BEHAR OPERADOREEI GEHIEGIZKO KARGARIK

Prozedurak eta izapidetzeak ezartzearen bidez lehia oztopatzen duten zama administratiboak saihestu behar dira, baita saihesgarriak diren baldintzak ere.

Lege berriak alde aurretik aurkeztu beharreko dokumentazio administratiboa eta kaudimenekoa sinplifikatuko du, Europako Agiri Bakarraren bidezko (EAB) erantzukizunpeko adierazpen batekin (SPKLren 140. art.).

Alde horretatik, SPKLk ezartzen du xedapen teknikoek enpresariei kontratazio-prozeduran berdintasun-baldintzetan sartzeko aukera emango dietela, eta ez dutela helburu izango justifikatu gabeko oztopoak jartzea kontratazio publikoa lehiari irekitzeari (SPKLren 126. Art.).

Araudiak **epe bat** ezartzen du **dokumentazio administrazioari buruzko okerrak zuzentzeko.**

Ezin da zuzendu epea bukatzean existitzen ez den zerbait ziurtatzea, ez eta enpresen proposamenei dagozkien elementuak ere.

Publizitatearen eraginkortasuna eta prozeduraren izapideen gardentasuna



KONTRATAZIO-PLATAFORMA BIRTUALETARA SARTZEAK AUKERA EMATEN DU LIZITATZAILE POTENTZIALEN ESPARRUA ZABALTZEKO

Gardentasuna funtsezkoa da sektore publikoko kontratazioan. Alde batetik, ustelkeria-arriskua txikitzen du. Ustelkeria gure gizarteko gaitz handi bat da, eta sektore publikoko erakunde askok egindako kontratazio askori eragin die; hori dela eta, SPKLk, lehendik aipatutako integritate-printzipioaz gain, ustelkeriari aurre egiteko neurriak sartu ditu. Bestalde, **gardentasuna ezinbestekoa da lizitazioetako oinarritzko beste printzipio batzuk berma daitezen, hala nola sarbide-berdintasuna eta diskriminaziorik eza.**

SPKL berriak ezartzen du kontratazio-organismoek Interneten bidez beren kontratatzaile-profila zabaldu beharko dutela; han, kontratu-jarduerari buruzko informazioa eta dokumentuak bilduko dira (SPKLren 63. art.).

Dena den, kontratatzailearen profila zabaltzeak ez du esan nahi ezin denik beste publizitate-bitarteko gehigarrikerik erabili.



■ V. FASEA: KONTRATU PUBLIKOA GAUZATZEA

5. FASEA: GAUZATZEA

Kontratu publikoa gauzatzea

Bat-bateko aldaketak eta zerbitzu osagarriak

Kontratu publiko bat gauzatzean, nolakotasuna aldatuko dioten hainbat kausa gerta daitezke, eta, beraz, ezinbestean gertatuko dira aldaketak, baina kausa horiek behar bezala justifikatu behar dira, ez dezaten lizitazioaren lehiakortasuna ahuldu.



**NOIZ ALDA DAITEKE
KONTRATUA BAT-BATEKO
KAUSA BATENGATIK?**

Bat-bateko aldaketak **aurreikus ezin zitezkeen kausen** ondorio diren interes publikoko arrazoiengatik baizik ezin dira justifikatu, eta kontratazio-espeditentean **nondik datorren behar bezala justifikatuta eta argumentatuta egon behar du**. Beraz, salbuespen neurri bat da, eta ezin die eragin kontratuaren baldintza normalei. Aldaketa horiek ezingo diete eragin, inola ere, kontratu publikoaren funtsezko baldintzei. SPKLren 204. artikulua pleguetan aurreikusitako aldaketez arduratzen da, eta 205.a aurreikusi gabekoez.

25. Kasua

Europako Batzordeak enpresa bati esleitu zion Armenia eta Azerbaijango hainbat herritarako fruta-zuku eta konfituren hainbat loteren hornidura, eta enpresa horrek, ordain moduan, merkatutik ateratako fruta kopuru batzuk jaso zituen. Esleipenaren ondoren, aukera eman zen ordainketa hasieratik aurreikusitakoa ez den moduan egiteko, eta kontratua aldatu zen. Erabaki hori ikusita, esleipenduna ez zen beste enpresa lizitatzailerik batek errekurtsio bat jarri zuen, tratu-berdintasunaren eta gardentasunaren printzipioak urratu zirela argudiatuta, besteak beste.

Justizia Auzitegiak dio erakunde esleitzailerik ez duela baimenik lizitazioaren sistema orokorra aldatzeko, bere kabuz funtsezko baldintza bat aldatuta; izan ere, hori lizitazio-iragarkian agertu izan balitz, lizitatzailerik guztiz bestelako eskaintza bat aurkezteko aukera emango zien. Ondorioz, esan daiteke bat-bateko aldaketak ez direla bateragarriak komunitateko zuzenbidearekin, aldaketak baldintza funtsezko edo garrantzitsu bati eragiten badiot behintzat, edo lizitazioaren dokumentazioan ez badago argi eta berariaz aurreikusita aldaketa bat egiteko aukera, eta zer aldaketa dauden baimenduta.

■ V. FASEA: KONTRATU PUBLIKOA GAUZATZEA



**NORI EMATEN ZAIO
BAT-BATEKO ALDAKETA?**

Bat-bateko aldaketa hasierako esleitzaileri ematen bazaio ere, aldaketa hori modu frogagarrian justifikatu behar da kontratazio-espeditentean, eta azaldu zergatik ezin den beste lizitazio batekin lortu kontratuaren helburua.



**LEHIAREN PRINTZIPIOA
ZAITZEN DUTEN
NEURRIAK**

Pleguek neurri osagarriak jaso ditzakete lehiak eragin negatibo gutxiago jasateko:

- Pleguetan berariaz jasotzea a posteriori alda daitezkeen elementuak zehazten dituzten aurreikuspenak.
- Bereziki erreparatu behar zaie aurreikusi ezin diren kausatzat hartutakoei pleguak diseinatzean, aurreikusi daitezkeenak ez sartzen saiatuz.
- Prezioak nabarmen aldatzen badira, komenigarria izango da merkatu-azterketa bat egitea.



**KONTRATU-ALDAKETEI
LOTUTAKO SEGIMENDU-
NEURRIAK**

- Erakunde bakoitzak lizitatutako kontratu guztien artean aldatutako kontratuen kopuruaren jarraipena egitea, erakunde publikoek salbuespenezko neurri horretara zenbatean behin jotzen duten jakiteko.
- Aldatutako kontratuetan, hasierako aurrekontuaren eta bukaeran ordaindutako prezioaren arteko aldearen jarraipena egitea, desbideratzea jakiteko.



**ZER DIRA ZERBITZU
OSAGARRIAK?**

Zerbitzu osagarriak negoziazio-prozedura baten bidez zerbitzu nagusiaren esleipendunari esleitzen zaizkion zerbitzu batzuk dira. Salbuespenezko neurria izan behar du, eta behar bezala justifikatu behar da nondik datorren dagokion kontratazio-espeditentean. SPKLk ezartzen du zerbitzu osagarriak ezin duela kontratu nagusiaren %20a gainditu.



**ZER ARRISKU DAKARTZA
ESLEIPEN OSAGARRIAK?**

Zerbitzu osagarriak neurrigabe erabil daitezke, eta, iruzur eginez kontratu baten exekuzio-aurrekontua handituz edo aurreikusi daitezkeen kasuetan erabiliz.

Horregatik, garrantzitsua da erakunde publikoek lizitatzailen jarrerari arretaz erreparatzea, praktika horiek sistematikoki erabiltzen diren kasuak identifikatzeko.

■ FASE 5: EJECUCIÓN

26. Kasua

Eraikin bateko obra osagarribatzuei buruzko espedientean, publizitaterik gabeko negoziazio-prozedura batez esleitutakoak, administrazioak beraiek justifikatu ditu eraikinaren segurtasun gehigarriko neurri moduan instalazio berriak egiteko beharraren ondorio moduan, baita ahots-aparatuak eta megafonia instalatzeko beharraren ondorioz ere. Espedientean ez da inolaz azaltzen jarduketa horiek zergatik hartu behar diren aurreikusi ezin daitezkeen inguruabartzat, SPKLk eskatzen duen moduan; beraz, behar bezalako publizitatearekin eta lizitazio-prozedura arruntarekin tramitatu zitezkeen, eta hala tramitatu behar zituzten.

Prezioak aldatzea



ZER ARRISKU DAKARTZA PREZIOAK ALDATZEAK?

Prezioak behar bezala zenbatestea garrantzitsua da ondorengo aldaketak saihesteko; beraz, **beharrezkoa da kontratatu behar diren zerbitzu eta ondasunen benetako balioa kontuan hartzea**. Dena den, kontratuaren prezioan aldaketak egon daitezke. Aldiz, erabakitzen bada kontratu baten prezioa ezin dela berrikusi, pleguan jaso behar da hori. **Prezioak berrikusteko formulak kontratuaren oreka finantzarioari eusten laguntzeko moduan diseinatu behar dira, eta aldaketa gehiago ez gertatzea zainduz.**


Azpi-kontratazioa



ZER ONURA DITU AZPI-KONTRATAZIOAK?

Azpi-kontratazioak **malgutasun handiagoa ematen dio kontratuaren esleipendunari. Beti jaso behar da pleguan** azpikontratatzeko aukera eta, gainera, horretarako gehienezko muga bat jarri.

azpi-kontratazioaren bidez, ETEen parte-hartzea errazten da.



ZER ARRISKU DAKARTZA AZPI-KONTRATAZIOAK?

Azpi-kontratazioak **lehia desitxura dezake**, zenbait lizitatuzailek erabaki dezaketelako eskaintza publikora ez jotzea eta azkenean esleipenduna izango denaren azpikontratatzaile izatea.

Era berean, eskaintza publikora aurkezteko baldintzak betetzen ez dituzten lizitatuzaileak azpikontratuak izan daitezke azkenean, eta, hala, lehia-prozedura desitxuratu.

Aztertu behar da ea merkatuaren egungo inguruabarrek ETEak kontratu publikoetako lizitazioetara sartzea bermatzen duten, lizitazio-prozesuko egiazko lehia nabarmen txikitu gabe.

Aurkibidea



HITZAURREA



1. **HELBURUA** Gidaren helburua eta administrazioak lehia bermatzeko duen rola



2. **5 FASEAK** Kontratazio publikoaren prozeduraren bost faseak



3. **KOLUSIOA**



4. **I. ERANSKINA:** Kolusioa hautemateko testa



BIBLIOGRAFIA

Lizitazio publiko batean, eskaintzaileen arteko kolusioa gertatzen da horiek ados jartzen direnean prezioa edo beste edozein merkataritza-baldintza ezartzeko, edo merkaturia banatzeko, lehiaketa edo enkante publiko batetik irabazi handiagoak lortzeko helburuz.



NORI ETA NOLA EGITEN DIO KALTE KOLUSIOAK?

Lizitazioaren arteko akordioek lehia desitxuratzen dute; alde batetik, **administrazio publikoari egiten diote kalte**, interesaren eta baliabide publikoen kudeatzaile den heinean, eta herritarrei, azkenean, kontratazio publikoan gainkostu bat sortzen delako.

Hainbat zenbatespenen arabera, kolusioa egon den lizitazioetan kontratatutako ondasun eta zerbitzuen **prezioek %20 baino gehiago egin dezakete gora**.



ZEIN NEURRIK ZEHATZEN DUTE KOLUSIOA?

Enpresen arteko kolusioak **enpresaren negozio guztien zifraren %10eko isunak ere ekar ditzake, edo 10 milioi eurora artekoak**. Gainera, isun gehigarriak aurreikusten ditu zuzendaritzako kideentzat, eta, are, **administrazio publikoarekin kontratatzeko inhabilitazioa edo debekua** 3 eta 5 urte bitartean. Gainera, Lehia Defendatzeko Lege berriaren IV. kapituluak, lehiaren inguruko bidegabekeriengatik kalte-galerengatik indemnitazioak arautzen ditu. Bidegabekeria penaltzat hartzen bada, Kode Penalak **urtebete eta 3 urte bitarteko espetxe-zigorrak** aurreikusten ditu.



ADMINISTRAZIOAREKIN KONTRATATZEKO DEBEKUA

Operadore ekonomikoak administrazio publikoekin kontratatzeko debekuarekin zehatu daitezke "lehia askea faltsutzeagatik" (SPKLren 71.-73. art.).

Kontratatzeko debekua kontratazio-organismoek emango dute zuzenean, dagokion autoritate eskudunak egindako ebazpen administratibo zehatzaile batean oinarrituta; ebazpen horretan, xehetasunez azalduko da neurria noraino iristen den eta zenbat irauten duen. Dagokion autoritate eskudunak ezer esaten ez badu, Ogasun eta Funtzio publikoko ministroak esan ahal izango du, kontratazio-batzorde aholku-emaileak proposatuta, eta ondorio berdinak izango ditu.

Debekuaren kausan sartuta dagoen pertsonak ziurtatzen badu inputatu zaizkion kausei konponbidea eman diela, dagokion isuna ordainduz, edo ziurtatuz neurriak hartu dituela kausa horiek berriz ez egiteko, ez da bidezkoa izango kontratatzeko debekua ezartzea.

Neurri hau aplikatzeko gehienezko epea 3 urtekoa izango da, baina 5 urtera ere luzatu ahal izango da kausa penalak daudenean. Ebazpen zehatzailea irmoa denetik hasita, 3 urtekoa izango da kontratatzeko debekuaren prozedura hasteko preskripzioa.

Kontratatzeko debekua norainokoa den eta zenbat irauten duen Lizitazioaren eta Sektore Publikoko Enpresa Klasifikatuaren Erregistro Ofizialean inskribatu beharko da.



ZEIN FAKTOREK ERRAZTEN DUTE KOLUSIOA?

Kolusioa errazten duten barne- eta kanpo-faktoreak daude.

Barne-faktoreak

Kolusio-saiakeretan arrakasta lortzea gertatu daiteke enpresak gai direnean helburuak eta horiek lortzeko bitarteko komunak adosteko, adostutakoa aplikatzen dela ziurtatzeko eta betetzen ez duten partaideak zehatzeko.

Kanpo-faktoreak

Merkatuari dagokionez, kolusioa egingarriagoa da kasu hauetan:

- Merkatua egonkorra da, operadore ekonomikoek elkar ezagutzen dute eta kontratazio-baldintzak ez dira nabarmen aldatzen, eta ez dago berrikuntza teknologiko garrantzitsurik
- Merkatuko operadoreek antzeko produktu edo zerbitzua eskaintzen dute
- Ez dago ordezkorik edo beste aukerarik
- Merkatuko operadore ekonomikoak lotuta daude, kontratu edo egitura bidez, eta horrek haien arteko harremana errazten du.





LIZITAZIO-DISEINUAREN ZEIN EZAUGARRIK ERRAZTU EDO ZAILDU DEZAKETE KOLUSIOA?

Administrazio publikoek hainbat faktore hartu behar dituzte kontuan lizitazio-prozedura diseinatzean, eskaintzaileen arteko kolusioa zailtzeko.

- **Lizitatzaille kopurua:** zenbat eta lizitatzaille gehiago egon, orduan eta zailagoa izango da eskaintzaileen artean kolusiozko jokaerak izatea, ziurgabetasun handiagoa egongo baita beren artean, beraien kopuruari eta nortasunari dagokienez.
- **Kontratu kopurua:** kontratu kopuruak erraztu edo zaildu egin dezake lizitatzailleak prozeduran sartzea. Kolusioa zailtzeko, kontratuak beste organismo esleitzaille batzuekin batera ateratzeko aukera azter daiteke, bereziki kontratuak xede berekoak, tamaina txikikoak, ezaugarri antzekokoak eta lizitazio errepikatukoak badira. Organo esleitzaillearen kontratuak batzeak lizitazioak alde aurretik jakiteko aukera txikitu dezake eta, hala, enpresek haiek banatzea zaildu.
- **Lote kopurua:** kontratu bat loteetan banatzeak eragina izan dezake lizitatzailleengan, lagungarria baita haiek beren artean antolatzeke, bakoitzak lote bat hartzeko aukera emango dien kolusiozko jokaeren bidez. Horregatik, ez da lizitatzaille adina lote kopuru egon behar. Era berean, saihestu behar da loteak tamaina berekoak izatea.
- **Baldintzak aurreikusteko modukoak izatea:** kontratuen tamaina eta egutegien denbora-egitura aldatzeak aurreikusteko modukoa izateari eragiten dio, eta, beraz, eragin negatiboa du lizitatzaillearen artean merkatua banatzeko aukeretan.
- **Prozeduraren gardentasuna:** prozeduraren gardentasunak eta publizitateak orekatuta egon behar du, kolusiozko jokaerarik ez errazteko. Alde horretatik, egia bada ere aurreko lizitazioei buruzko informazio pixka bat publikoa dela, organo esleitzailleak baloratu beharko du ea aurreko lizitazio edo kontratuekin lotutako informazioak lehia desitxuratu dezakeen, eta, kasu horretan, ez agitaratu.
- **Lizitatzaillearen arteko komunikazioa:** lizitatzaillearen arteko komunikazioak kolusiozko jokaerak erraztu ditzake. Horregatik, araudiak aurreikusten duenean organo esleitzailleak alde aurreko bilerak izatea operadore ekonomikoekin, bilera horiek banaka eta konfidentzialki eduki beharko dira. Era berean, eskaintzen aurkezpena ez da aurrez aurreko bitartekoen bidez egin behar, eta, ahal den neurrian, eskaintzaileen arteko komunikazioa saihestu behar da. Haien artean lotura dagoenean, bereziki erreparatu behar zaio.
- **Esleipena mugatzea:** kolusiozko jokaerak saihesteko, lizitatzaille bakoitzari esleitu dakioken kontratu edo lote kopurua mugatu daiteke, betiere salbuespenezko neurria bada eta justifikatuta badago.

Edonola ere, ezaugarri horietako lehiak ez du ziurtatzen ez dela kolusiorik egongo. Beraz, kontuan hartu beharreko adierazleak edo elementuak badaude, azterketa xehea egin beharko da kolusioa dagoen zehazteko.



ZEIN DIRA KOLUSIOZKO JOKAERA OHIKOENAK?

Kolusioak bi helburu izaten ditu: eskainitako prezioa edo aurrekontua ezartzea edo/eta merkatua banatzea, baina, era beran, enpresek pleguetako beste baldintza espezifiko batzuk ere adostu ditzakete (gauzatze-epeak, ezaugarri teknikoak, etab.)

1. Prezioak ezartzeko akordioa

Lizitazio lehiakor batetik eratorritako prezio handiagoa lortzeko helburuz, lizitatuzaileek, besteak beste, eskainitako beherapenak adostu ditzakete, partehartze prezio minimoak ezarri edo prezioa kalkulatzeko formula bera aplikatu.

27. Kasua

Garraio enpresa-elkarte baten barruan, zerbitzuen prezioak adostu zituzten, eta ibilbideak banatu; gainera, akordioak bete nahi ez zituzten enpresei boikota egiteko sistema bat ezarri zuten

Zehatutako enpresek izandako jarraibideek garraio-merkatuaren hainbat segmenturi eragiten zieten, eta elkarrekin jarduteko plan bakar bati erantzuten zioten; han patroi bera identifikatu zitekeen argi eta garbi, eta haren helburua zen tarifak ezartzea eta jarduten zen merkatuetako garraio-zerbitzua banatzea.



28. Kasua

Gernu-inkontinentziarako helduentzako xurgatzaileak egiten zituzten zazpi enpresari eta enpresarien federazio bati zehapena jarri zieten arau-hauste bakar eta jarraitu bategatik.

Gutxienez 1996tik 2014ra, administrazioak finantzatzen dituen eta ospitalean ez dauden pazienteentzako erosten diren xurgatzaileen prezioak ezarri zituzten.

Ados jarri ziren eta handizkako banatzaileentzako salmenta-prezioak ezarri zizkieten farmazien bidez merkaturatutako produktu hauei. Zehatutako jarrera noraino iritsi zen esanguratsua da, merkatu garrantzitsuaren %95eko merkatu-kuota baitzuten erakunde arau-hausle guztien artean.

2. Merkatua banatzeko akordioak

Enpresa lizitatzailleak merkatu geografikoak edo bezeroenak banatzen saia daitezke. Ohikoa da lizitazioaren banaketa hori aurretik bazeuden merkatu-kuotetan oinarrituta egitea.

29. Kasua

Jangela-zerbitzua emateko lizitazioa bi faseko prozedura baten bidez: lehenean, enpresek zerbitzua emateko gaitasuna ziurtatzen dute, eta, bigarrenean, lote bakoitzaren kontratua lortzeko lehiatu behar dira. Zehatutako enpresak izan ziren kontratazioko lehenengo fasea gainditu zutenak, eta, beraz, loteengatik lehiatu zitezkeen bakarrak.

Zehatutako enpresek uko egin zioten gai ziren lote guztiengatik lehiatzeari, loteak banatzeko helburuz aurkeztutako eskaintza jarraibide bateratuaren bidez. Hala, ikertutako urte guztietan, zehatutako enpresek zerbitzua bakoitzak lote berean ematea ziurtatu zuten, kontzertazioagatik gorantz aldatutako prezioan.

30. Kasua

Elkarte bateko bileretan, azpimarratzen da lehiaketa berria arautzen duen araudia guztiz berria dela; beraz, tentu handiz azertu behar dela okerrik ez egiteko. Klausula administratiboen edukia aztertzen da, eta A, B eta C gutun-azaletan aurkeztu beharreko dokumentazioa errepasatzen da. Ibilbideak errepasatu zituzten, eta enpresa bakoitzari bereak esleitu zizkioten, elkartearen akordioak indarrean zeudela azpimarratuta.



ZEIN TEKNIKA MOTA ERABILTZEN DITUZTE OPERADORE EKONOMIKOEK KOLUSIOA EGITEKO?

Aurrez adostutako eskaintza irabazlea ezartzeko kolusio-teknika ohikoenak, eskuarki aldi berean erabiltzen direnak, honako hauek dira.

- **Jarrera ezkutua:** aldez aurretik lizitazioa ez irabazteko izendatutako akordioko kideek irabazteko inolako aukerarik ez duten eskaintzak aurkezten dituzte. Hala, eskaintza irabazlea nabarmentzea eta prozesuari zilegi itxura ematea lortzen dute.
- **Proposamenak kentzea:** lizitazioa irabazi behar duen enpresa aukeratuta, beste enpresek ez dute eskaintzarik aurkezten.
- **Irabazlea txandakatzea:** akordioaren kideak koordinatu egin daitezke txandaka esleipen-organo baten lizitazioak irabazteko, askotan, jarrera ezkutuen bidez. Eskaintza irabazlea txandaka aurkeztuta, enpresa guztiak dira kontraturen baten esleipendunak eta, beraz, kasu horietan batzuetan ez da beharrezkoa gero irabaziak banatzea.

31. Kasua

Europako Batzordeak nazioarteko etxe-aldaketen bederatziti enpresa belgikar zehatu zituen, 2008an, kolusioagatik. Kartel horrek hemeretzi urtez jardun zuen, eta lizitazio publikoak manipulatzeko irabazlea txandakatzeko jarrera ezkutuen bidez. Enpresek irabaziak banatzen zituzten "komisioak" esaten zieten konpentsazioen bidez; konpentsazio horiek azkeneko prezioaren parte ziren, eta enpresa galtzaileei banatzen zitzaizkien faktura faltsuen bitartez.



ZEIN KONPENTSAZIO-TEKNIKA ERABILTZEN DITUZTE KOLUSIO-AKORDIOKO PARTAIDEEK?

Kolusio-akordioaren parte-hartzaileak konpentsatzeko teknika nagusien artean, hauek daude:

- Ondasun- edo zerbitzu-emate errealeen korrante bati ez **dagozkio faktura faltsuak erabiltzea**.
- Esleipendunak esleipena lortu ez duen kolusio-akordioako konpainiaren bat **azpikontratzea**.



NOLA HAUTEMAN DEZAKETE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KOLUSIOARIK IZAN DEN LIZITATZAILEEN ARTEAN?


Hainbat adierazle daude administrazio publikoekin izandako kolusiozko jokaerak identifikatzeko. Nahiz eta adierazle horiek jarrera arraroren baten adierazle izan daitezkeen, ez dute zertan kolusioaren adierazle izan; beraz, horiek daudela identifikatzean, egoera xeheago aztertu beharko da.

Lizitatzailen jokaerarekin lotutako adierazleak

- Normalean baino **enpresa gutxiagok** aurkeztu dituzte eskaintzak.
- Enpresa batzuk **ez dute normalean aurkeztuko liratekeen lizitazio batean parte hartzen**, baina, bitartean, beste organismo esleitzailen batzuen antzeko lizitazioetan parte hartzen dute.
- **Enpresa batzuk beti aurkezten dira, baina ez dute inoiz irabazten**. Posible da enpresa horiei, jarrera ezkutua aurkeztearen truke, enpresa esleipendunak nolabaiteko konpentsazioen bat ematea.
- **Enpresa batzuek elkarrekin aurkezten dute eskaintza, nahiz eta gutxienez haietako batek banaka aurkez zezakeen**.
- **Elkarrekin lotutako edo talde bereko zenbait enpresak aurkeztea eskaintzak**. Nahiz eta egoera hori onartuta egon daitezkeen araudian, enpresa-talde bereko parte izateak estrategiak koordinatzea erraztu dezake.
- **Organo esleitzailen bati eskaintzarik onena aurkezten dion enpresa berbera da askotan**, eta hori, ziur asko, merkatua banatzeko aurrez egindako kolusio-akordio baten ondorio da.
- Enpresa batzuek **eremu geografiko jakin batzuetan** bakarrik irabazten dute, nahiz eta hainbatera aurkeztu.
- **Badirudi lizitatzailen txandakatu egiten direla denboran** eskaintza irabazlea aurkezteko.
- Lizitazioaren enpresa esleipendunak behin eta berriz azpikontratzen ditu dagozkien lehiaketa edo enkanteak irabazi ez dituzten beste enpresa batzuek kontratuaren zati bat betetzeko.

Prezioarekin lotutako adierazleak

- Kostuak handitzeagatik justifikatuta ez dauden **lizitzaileen bat-bateko prezio-igoera berberak**.
- Enpresek kostuen **zenbatespen berdinak eta/edo batere ez errealistak** egiten dituzte zenbait partidatan.
- **Prezioen arteko desberdintasun handiak** enpresa berak antzeko kontratu baterako organo esleitzzaileen edo erakunde pribatuen aurrean egiten dituen eskaintzetan.
- Egoitza bertan duten enpresek, enpresa horiek beste kontratazio-organoko batzuen aurrean aurkeztutakoak baino **prezio handiagoko eskaintzak egitea lurralde jakin bateko kontratazio-organoen aurrean**.
- Lizitazioetan eskaintzaile berri bat atera ondoren eskaintako **prezioetan beherapen nabarmenak** izateak erakuts dezake lehiakideen arteko akordio bat izan dela.
- Aurreko lizitazioekin konparatuta, **oro har eskaintza guztietako prezioak handitzea**, kostuak handitu gabe, ez eta beste ageriko justifikaziorik gabe.
- **Esleipenaren gehienezko aurrekontua baino prezio handiagoko eskaintzak aurkeztea**. Baliteke enpresak ados jarri izana lizitazioa hutsik geratzeko eta organo esleitzzailea bultzatzeko aurrekontu maximoa handitzeko.



Dokumentazioarekin lotutako adierazleak

- Hainbat proposamenetan dauden **kalkulu-okerrak, ortografikoak** edo eskaintzaren aurkezpeneko **arazo formalak**.
- Eskaintza guztietan **urratuak edo zirimarrak egotea** azken orduko akordio baten adierazle izan daiteke.
- Lizitzaile desberdinen eskaintzak **tipografia edo paper berarekin**.
- **Eskaintzak posta-helbide**, fax-zenbaki edo posta elektronikoko helbide beretik bidalita.

Eskaintzaileen adierazpenekin lotutako adierazleak

- **Akordio** posible bat izatearen inguruko **ahozko erreferentziak edo idatziak**.
- **Eremu jakin batzuetan edo kontratazio-organo jakin batzuei eskaintzeari ukapen sistematikoa**.
- **Akordio bat izateak ekarri ahal izango lituzkeen ondorioei** buruzko galderak edo ezinegonak.
- Hainbat eskaintzailek terminologia antzekoa erabiltzea, adibidez, prezioen igoera azaltzeko.

Beste jarrera susmagarri batzuk

- Enpresa batek **beretzat eta lehiakideren batentzat hartzen ditu oinarriak, edo bere proposamena eta beste enpresa batena batera aurkezten ditu**.
- Enpresa batek **gauzatzeko gaitasunik izango ez duen proposamen bat aurkezten du**.
- Enpresa batek bakarrik bilatu du eskaintza bat aurkezteko kostu eta prezioen inguruko informazio garrantzitsua, adibidez kideen banatzaileekin kontaktatuta, nahiz eta lizitazio-prozesuan enpresa gehiago egon.



**ZER NEURRI HAR DITZAKE
ADMINISTRAZIOAK
KOLUSIOAREN AURKA?**

Kolusio-akordioak hautemateko, oso garrantzitsua da administrazioaren rola, eta, horretarako, bi jarduketa-bide egingo dira: (i) informaziorako sarbidea errazteari begirako neurriak bultzatzea, eta (ii) kolusiozko jokaeraen adierazleak daudenerako gidalerroak zehaztea.



**NOLA HAR DIEZAIROKE
AURRE ADMINISTRAZIOAK
KOLUSIOARI?**

Informaziorako sarbideak, desberdina denean lizitzaileen artean, lizitzaileen edo eskaintzaileen artean kolusiozko jokaerak izateko aukera handitu dezake.

Horregatik, garrantzitsua da eskaintzaile guztiek informazio berera sarbidea izatea (batez ere, xede bereko aurreko lizitazioei dagokiena).



NOLA HAR DIEZAIROKE AURRE ADMINISTRAZIOAK KOLUSIOARI?

Administrazioak kolusioari aurre hartu diezaioke, horrela:

- Administrazioko langileak kolusiozko jokaerak detektatzeko tekniken inguruan prestatuz.
- Aurreko lizitazioen informazioa sistematikoki erregistratuz, ahalik eta xehetasun handienaz, patroiz, joera eta adierazle susmagarrien segimendu eta identifikazioa egin ahal izateko
- Kolusioa izan daitezkeen jarrera susmagarriak nola salatu jakinaraziz



KASU BEREZIA: ABEE ETA IEE

Lizitazio-prozeduretan parte hartzeko aldi baterako enpresa elkarteak (ABEE) edo interes ekonomikoko elkarteak (IEE) erabiltzeak eragin positiboak izan ditzake, **inbertsio handiak egiteko finantzaketarako sarbidea errazten baititu eta baliabide osagarriak komunean jartzen dituzten ETEek parte hartzeko aukera ematen baitu (SPKLren 69. art.).**

Dena den, enpresa elkarte horiek kolusioa ere erraztu dezakete, eta, horregatik, arretaz erreparatu behar zaie. Lehiaren aurkako akordio bat izatearen adierazleen artean, hauek daude.

- a) ABEE edo IEE bateko kide batzuek dagokion lizitazioan banaka parte hartu ahal izatea.
- b) Enpresa-talde bereko enpresek aldi berean lizitazio-prozedura batean parte hartzea; adibidez, taldeko enpresa bat banaka aurkezten da eta beste bat ABEE edo IEE baten bidez.
- c) ABEE edo IEE bat osatzen duten enpresek arlo publiko edo pribatuan kontzentratzen dute jardueraren zati handi bat.
- d) Merkatu-kuota global altua duen ABEE edo IEE batek lizitazio jakin baterako beste ABEE edo IEE lehiakor bat osatzeko gaitasunik ez duten beste enpresa batzuekin elkartzeari uko egiten dio
- e) Enpresak lehenago saiatuak dira ABEE edo IEE batekin parte hartzen, eta ez zaie utzi. Azkenean banaka parte hartzen badute, era koordinatuan jokatzeke asmoa izan dezakete. TDCK askotan ikertu eta zehatu ditu horrelakoak.
- f) Enpresak banaka hartzen dute parte lizitazioan, eta ondoren gauzatzea denek parte hartzen duten IEE bati azpikontratzen diote. Horrek merkatua banatzeko akordio bat dagoela isla dezake, ziurtatzeko, irabazten duenak irabazten duela ere, gauzatzea elkarrekin egingo dutela.

32. Kasua

MBLNk lau enpresa eta enpresa horietako bederatzizuzendaritza-kide zehatu zituen. Jarrera arau-hausle gehienak 15 urtez egin zituzten, 1999ko uztailetik gutxienez 2014ko urrira arte.

MBLNk frogatu zuen zehatutako lau enpresek merkatua banatu zutela beren artean, prezioak eta beste merkataritza-baldintza batzuk adostu eta merkataritza-informazio sentsiblea trukatu zutela 15 urtez, Trenbide Azpiegitura Administrazioak (TAA) eta haren aurreko Trenbide Azpiegituren Kudeatzaileak (TAK) deitutako lizitazioetan tren-saihesbideak eta beste elementu osagarri batzuk hornitzeko. Estrategia oso bati erantzuten zion, TAA eta TAK kudeaketa-erakundeek deitutako tren-saihesbideak egiteko lizitazioetan lehia ezabatzea helburu zuena.

Estrategia nagusia zen, justifikaziorik gabe eta iraunkorki, **aldi baterako enpresen elkarrekin erabiltzea (ABEE)**; elkarrekin aurkezten zituzten eskaintzak AHTaren eta linea arruntren tren-saihesbideak hornitzeko TAK/TAAk antolatutako lizitazioetan parte hartzeko.

Zehatutako lau enpresak negozio-bolumen handiko enpresak dira, eta merkatuan, eskuarki, banaka jarduteko gaitasun frogatua dutenak.

Dena den, enpresak banaka aurkeztu ziren aldi bakanetan, eskaintzaren ezaugarriei buruz eta lanak banatzeari buruz ados jarri ziren, askotan lizitazioa egin aurretik.

33. Kasua

Lehiaren Euskal Kontseiluak ebatzi zuen bi operadore telefonikoren ABEEak ez zuela justifikazio teknikorik, bi enpresek lehiatu baitzezaketen lizitazioerako bereizita, baita kontratua gauzatu ere esleipena lortuz gero; bestalde, elkartze horrek ez zekartzan interes orokorarentzako beste onura batzuk ez jarrera horiek lehia-araudiarekin zuten gatazka gainditzeko sinergiarik. Alderantziz, efizientzia txikitzea ekar zezakeen operadoreen lehia-txikitze bat zen.

34. Kasua

Anbulantzia enpresa batek talde bat salatu zuen merkatu publikorako eta pribaturako sarrera ixteagatik, bere kideen artean banatu baitzuen jarduera. Taldearen akordioaren hainbat klausula lehiaren aurkakotzat hartu ziren.

Antzera baloratutako kasu bat izan zen 13 ambulanzia enpresa elkartzea ABEE bat sortzeko. Talde horrek merkatu publikoa eta pribatua banatzeko klausulak zituen.



**KOLUSIOAREN SUSMOAK
DAUDENEAN, ZER NEURRI
PREBENTIBO HAR
DAITEZKE?**

- Lizitazio-prozedura irekiak erabiltzea gomendatzen da
- Eskaintzaileen jarrera aztertzeko bide ematen duten enkante elektronikoak erabiltzea
- Esleipen-prozedurako faseetan lizitatzzaileei ematen zaien informazioa mugatzea gomendatzen da: beren sailkapenaren berri ematea, baina fase bakoitzean zenbat eskaintzaile dauden eta zeintzuk baztertu dituzten esan gabe
- Eskaintzaileen arteko lotura juridikoa egiaztatu behar da
- Ez da azken esleipena eskaintza publikoko irizpide teknikoak edo pleguak definitu dituztenen esku utzi behar
- Eskaintzaileei jakinarazi behar zaie edozein jarrera susmagarri aztertuko dela, eta kolusioari dagozkion zigorren eta zehapenen berri emango





ZER PAUSO JARRAITU BEHAR DITU ADMINISTRAZIOAK KOLUSIOA BADAGO?

- **Kasua Lehiaren Agintaritza eskudunari jakinaraztea.** Alde horretatik, SPKLLk prozedura summarisimo bati egiten dio erreferentzia kolusio-zantzu sendoak dauden kasuetarako. Halakoetan, kontratazio-mahaiari jakinaraziko dio, eta hark, ondoren, lehiaren agintaritzari jakinaraziko dio.

✉ Helbide elektronikoa: **infocompetencia@avdc.eus**

☎ Telefonoa: **94-4032813**

📍 Zuzenean edo ofizioz: **LEA/AVC Ercilla kalea,
4, 2.solairua, 48009 Bilbo.**

69.2. artikulua kontratazio-mahaia edo, bestela, kontratazio-organoa kontsultatzea aurreikusten du, kolusio-zantzuak atzemanaz gero aldi baterako enpresen elkartetan.

132. artikulua argi eta garbi uzten du kontratazio-organoek edozein akordio-, erabaki- edo gomendio kolektibo-zantzu jakinarazi behar dutela, baita lizitatzaileren artean itundutako edo paraleloan ezagutarazitako jarduerak ere, beraien xedea, eragiten dutena edo eragin dezaketena kontratazio-prozesuko lehia eragozte, mugatzea edo faltsutzea bada.

Horren inguruan, SPKLLk kontsultarako prozedura summarisimo bat aipatzen du; aldi baterako enpresen elkarrekin buruzko 69.2. artikuluan, eta 132.3. artikuluan. 150.1. artikulua arautzen du prozedura hori, eta araudiaren garapen bat aurreikusten du horretarako.

150.1. artikulua, hirugarren paragrafoan, honako hau xedatzen du: "Kontratazio mahaiak edo, bestela, kontratazio-organoak bere funtzioak betetzean kontratazio-prozeduran kolusiozko jokaerak daudelaren zantzuak baditu, 15/2007 Legeko (uztailaren 3koa, Lehiaren Defentsari buruzkoa) 1. artikulua definitutakoaren arabera, **kontratu esleitu aurretik jakinaraziko dio** Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari edo, bestela, **erkidegoan eskumena duen lehia-agintaritzari, prozedura summarisimoen bidez horien inguruan erabaki dezaten.** Zantzu horiek bidaltzeak kontratazio-prozesua etetea ekarriko du. Bidalketa kontratazio-mahaiak egiten badu, kontratazio-organoari emango dio horren berri. Araudiaren arabera erregulatuko da paragrafo honek aipatzen duen prozedura."

Lehia-agintaritzak kolusio-zantzuak baieztatzen baditu, esleipena eten egin beharko da lehia-agintaritzak zehapen-espeditentia hasi arte.



ZER DA ERRUKITASUN- PROGRAMA?

LDLk 65. eta 66. artikuluetan isunak salbuesteko eta txikitzeko programa xedatzen du, errukitasun-programa delakoa. Edozein pertsona fisiko edo enpresa izan daiteke isuna salbuestearen edo txikitzearen onuradun, "kartel" batean (bi lehiakide edo gehiagoren arteko akordio sekretua, xede gisa prezioak eta produkzio- edo salmenta-kuotak ezartzea, merkatuak banatzea edo inportazio edo esportazioak mugatzea duena) parte hartu badu, eta hura salatzen badu eta ikerketarako froga esanguratsuak ematen baditu.

Aurkibidea



HITZAURREA



1. **HELBURUA** Gidaren helburua eta administrazioak lehia bermatzeko duen rola



2. **5 FASEAK** Kontratazio publikoaren prozeduraren bost faseak



3. **KOLUSIOA**



4. **I ERANSKINA:**
kolusioa hautemateko testa



BIBLIOGRAFIA

Kolusioa hautemateko testa

Lizitzaileen arteko kolusio-akordioak zailak izaten dira hautematen. Inplikaturako lizitzaileek badakite beren jarduketan legez kanpoko delakoa, eta, beraz, akordio horiei isilpean eusten saiatzen dira. Dena dela, badira zenbait jarrera eta ohartarazpen-seinale kontratazio organoari kolusioa hautematen edo kolusioa egon daitekeelaren susmoak izaten lagun diezaieketenak; beraz, adierazle horiei oso adi egotea gomendatzen da

ESKAITZAK	
Patroiak eta ohartarazpen-seinaleak lizitzaileek aurkeztutako eskaintzetan	(markatu aplikatzen bada)
Lizitzaile berak aurkezten du normalean eskaintzarik txikiena	
Lizitzaile berberak irabazten dute beti, gune geografikoaren arabera.	
Lizitzaile batzuek ez dituzte aurkezten eskaintzak lizitazio batzuetara, antzeko beste batzuetara	
Lizitzaile batzuk beti aurkezten dira, baina ez dute inoiz irabazten.	
Hainbat lizitzailek elkarrekin aurkezten dute eskaintza, nahiz eta bakarrik ere aurkez dezaketean	
Eskaintzak ezustean erretiratu dituzte	
Esleipendunak txandakatu egiten dira.	
Irabazi duen lizitzaileak esleipena jaso ez dutenak azpikontratatu ditu.	

DOKUMENTAZIOA	
Oker berberak (ortografikoak, aritmetikoak, etab.) lizitzaile desberdinek aurkeztutako dokumentuetan	(markatu aplikatzen bada)
Formatu berdina (letra, eredu... berdina)	
Dokumentazioa helbide beretik bidali da (helbide elektronikoa, faxa, etab.)	
Kostua kalkulatzeko zenbatespenak antzekoak dira	
Aldaketak daude dokumentazioan (urratuak, zirimarrak edo zuzenketak)	

PREZIOAK	
Bat-bateko handitze berdinak prezioetan, kostuak handitzearen arabera azaldu ezin direnak	(markatu aplikatzen bada)
Bat-batean desagertzen diren deskontuak edo diru-itzulketak	
Prezio berdinak	
Alde handiak irabazlearen prezioaren eta gainerakoen prezioen artean	
Lizitzaile batek kontratu baterako egin duen eskaintza antzeko beste baterako egin duena baino	
Prezioen murrizketa lizitzaile berriak agertzean.	
Prezioak altuagoak tokiko entregatan urrunago dauden tokikoetan baino.	
Prezioek orokorrean egiten dute gora, justifikazio argirik gabe.	
Eskaintza batzuk gehienezko aurrekontua baino handiagoak dira.	

BESTEAK	
Eskaintzaileen artean akordioak egin izanari buruzko erreferentzia idatziak edo ahozkoak.	(markatu aplikatzen bada)
Eskaintza bat aurkeztu baino lehen lizitzaileak elkartzea.	
Lizitzaileak askotan elkartzea elkarreetan, jardunaldietan eta abarretan.	

Aurkibidea



HITZAURREA



1. **HELBURUA** Gidaren helburua eta administrazioak lehia bermatzeko duen rola



2. **5 FASEAK** Kontratazio publikoaren prozeduraren bost faseak



3. **KOLUSIOA**



4. **I. ERANSKINA: kolusioa hautemateko testa**



BIBLIOGRAFIA

Bibliografía

Gida hau egiteko, jarraian aipatzen diren erreferentziazko hainbat dokumentu hartu dira kontuan:

- EUROPAKO BATZORDEA. *"Informe España 2017 de la Comisión Europea, Reflexiones sobre la debilidad de la contratación pública en España."*
- EUROPAKO BATZORDEA. *"Guía Práctica sobre cómo evitar los errores más comunes en la contratación pública de proyectos financiados con cargo a Fondos Estructurales y de Inversión Europeos."* 2015.
- EKONOMIA LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO ERAKUNDEA. *"Recomendación del Consejo de la OCDE para combatir la colusión en la contratación Pública"*. 2012ko uztaila.
- EKONOMIA LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO ERAKUNDEA. *"Guidelines for fighting bid rigging in public procurement"*. 2009ko otsaila.
- MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. *"Análisis de la Contratación Pública en España: Oportunidades de mejora desde el punto de vista de la competencia"*. 2015eko otsaila
- LEHIAREN KATALUNIAKO AGINTARITZA. *"Guía para la prevención y detección de la colusión en la contratación pública"*. 2010eko ekaina.
- LEHIA BABESTEKO ANDALUZIAKO AGENTZIA. ANDALUZIAKO JUNTAREN EKONOMIA, BERRIKUNZA ETA ZIENTZIA SAILA. *"Recomendaciones para facilitar el acceso y promover la competencia en el ámbito de la contratación pública andaluza."* 2010eko abendua.
- LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. *"Guía sobre Contratación Pública y Competencia"*. 2011
- KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO ORGANOA. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011tik 2018ra arteko dotrina.
- LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. Gidaren adibideetan erabilitako ebazpenak webgunean hartutakoak dira, URL honetan eskuragarri: <https://www.cnmc.es/>



Lehiaren Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca de la Competencia